



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

EMILIO SALGARI


**urrutiko
mendebaleko
mugak**

Itzulpena:

Gilermo Etxeberria

URRUTIKO MENDEBALEKO MUGAK

EMILIO SALGARI



— Gaua txarra izango dugulakoan nago — zioen Devandel koronelak. Ameriketako gobernua bidalitako gizona zen hau, cowboy direlakoen kontra. Berak zaintzen zituen ba, inguruko mendi haiek —. Erne ibili indioekin, ze bestela gauza baitira mendi lepoa igarotzeko!

Eta hark bazekien esaten zuenaren berri. Berehala egundoko euri jasa hasi zuen. Denak dendetan eta ondoko furgoietan babestu ziren. Gazteenak ez. Haiek han gelditu ziren zain, mendi lepoari begira. Ibilbide hark izena beldurgarria zuen: Hiletaren ibilbidea esaten zioten.

— Ezer ikusten al duzu Harris? — galdetzen dio gazteenak.

— Ezer ez, Jorje! — erantzun zion besteak.

— Hala eta guztiz ere, ziur nago indioen bat hemendik pasatzeko prest dagoela. Colorado aldean asaldatu direnei mezuren bat bidaltzeko.

— Bada hala bada edo ez bada, berdin zait. Pasatzen hasten bada, bertan xehetuko dut nire riflearekin. Eta zuk badakizu nik punteria ona dudala.

Pentsatu bezala, hara non ikusten duten mendi lepoaren hasieran zaldi eder eta handi bat. Zuri zuria, lepagain eder bat zuelarik eta isats ugari eta iletsua. Bere gainean zaldun bat, bularraren kontra zerbait edo norbait zeramala.

— Jo tiro!

Eta bat batean bi tirok urratu zuten airea. Zaldiak bere sabel ederretik odola zeriola lur jo zuen.

Bi erbi baino bizkorrago abiatu ziren Harris eta Jorje indiarraren kontra. Ez bazuen errenditu nahi, bertan akabatzeko prest. Eta, izan ere, ez baitzegoen beste biderik. Horri deitzen zitzaion Belazetako Lege zorrotza.

Zelatariak inguratu zitzaizkion. Eta Harrisek piztu zuen linterna.

Mutil indartsu bat zen lurrean zegoena. Azal zuri samarrekoa, eta begi urdinak. Haien arrazan ez ziren ezaugarri horiek oso normalak.

— Hau ere harrapatu diagu ba! Ez du edozein denik ematen. Honek txeieneodoleko indiarra dirudi!

Indiar gazte hark maltzurki begiratu zion. Bere inguruan zerbait aurkitu nahiko balu bezala.

— Aizu, Harris! — erantzun dio Jorjek —, uste dut indiar hau norbaitekin zetorrela. Ez dut uste bakarrik zetorrenik.

— Ea bada, begiratu inguruan. Gu, goazen koronelarengana preso honekin. Oraindik esna al dago?

— Hala uste dut. Ze oraindik John Maximekin hizketan ari baitzen — erantzun zion beste soldaduak.

— Ondo dago. Guk eraman dezagun ba indiar hau koronelarengana. Eta zuek begiratu inguruan. Ze bere besotan ume bat zeramala uste baitut.

Laster ziren koronelaren denda. Denda hau besteak baino altuagoa zen. Eta kono baten forma zuen. Inguruan haga asko zituen babesteko eta trinko mantentzeko. Barruan beheko sua piztua zeukaten. Han zegoen lehen aipatu dugun John Maxim ere. Gizon honi indiar agentea deitzen zioten. Abenturazale porrokatu horietakoa. Beldurraren zipitzik ezagutzen ez zuen horietakoa.

Koronelaren izena Devandel zen. Altxa zituen begiak lasai eta begiratu zion ekarri berria zuten indiarrari. Eta hala galdetzen dio:

— Nor zara zu?

— Ni? Gautxori naiz — erantzun zion indiarrak harrosko.

— Zure jazkeragatik txeieneodolekoa zarela esango nuke. Ez al dakizu zure herrialdea eta gu borrokan gaudela? Orduan zergatik nahi zenuen hemendik pasa?

— Arapaho odoleko buru den Ezkerrari bere alaba eramateko agindua nuelako. Bere alaba Minnehaha da.

— Gezurra da hori! Gezurretan ari zara. Ze buruzagi batek ezin dezake honelako burugabekeria bat egin.

— Nik agintzen didatena betetzen dut. Ez besterik!

Orduan koronelak galdetzen dio John Maximi:

— Zer derizkiozu?

— Ez dut uste indiar hau txeieneodolekoa denik. Begiratu bestela bere azalaren zuriari eta begien urdinari. Esango nuke siux odolekoa eta azal zuriko emakume baten semea dela. Txeiene dela adierazi nahi du baina, hor lepoan zintzilik daraman harri urdina, siux odolekoek bakarrik eraman ohi dute.

Orduan koronela urduri jarri zen. Eta hala galdetzen dio John Maximi, gogotsu:

- Ziur el zaude siux odolekoa dela?
- Ni bai, ziur nago. Lepoa jokatuko nuke.

Koronelak, orduan, hamaika galdera egin zizkion indiarrari. Noren semea zen, nongoa, zertara zihoan eta abar. Honek, ordea, entzungor egin zion, hitz erdi bat ere erantzun gabe.

Isiltasun hark, oraindik ere gehiago sutu zuen koronela, eta berriro galdetzen dio haserre:

- Azkenekoz: nor dira zure gurasoak?

Eta orduan mutilak:

- Ez ditut nere gurasoak ezagutu.
- Zuriak ala indiarrak ziren?
- Ez dakit.
- Esan iezaguzu ze odolekoa zaren: siux ala cheyenne.
- Beharbada, batekoa eta bestekoa. Baina horrek ez du axolarik. Zure gatibua naiz. Eta nik badakit gatibuen legea. Hil nazazu, eta Espiritu Handiak bere magalpean hartuko nau.

Instantean ireki zen atea eta sartu ziren zelatariak, neska koskor bat eskuetan zutelarik. Azal beltzekoa, arropa bikain batez hornitua, urrezko eskumuturrekoak eta beste hainbesteko bat buruan zuelarik. Ez zen hura, itxuraz behintzat, edozein gudariren alaba. Gautxorik, haserre keinu bat egin zuen neskatoa ikusi zuenean. Eta lotsagabeki koronelari inguratu zitzaion galdezka:

- Ze asmo dituzu nire lagun Gautxorirekin?
- Ez dakit. Beharbada, hemendik ordubetera hilko da. Baina esaten badidazu zergatik pasa nahi zenuten Hiletaren Ibilbidea, eta esaten badidazu, zure lagun hori siux ala txeiene

den, orduan, bai, beharbada erruki naiteke.

— Baina nik ez dakit ezertxo ere. Nik ez dakit.

Erantzun hura normala zen. Hala esan zion indiar-agentek koronelari:

— Ez dute ezer ere esango. Onena mutil hau fusilatzea izango da. Neska gorde dezagun. Eta gaur edo bihar jakingo dugu zer nahi zuten.

— Fusilatu? — erantzun dio koronelak.

— Zertarako nahi duzu gazte hori?

— Ez dakit. Baina zerbaiten susmoa sartu zait buruan.

— Ez duzu barkatzeko arrazoirik, gizona.

— Bai, hori badakit. Gure gudak ez du barkamenik onartzen. Baina ez dut nik hil nahi. Eman ezazu zeuk agindua.

Orduan John Maxim jaunak, besoak altxa eta lotzeko agindua eman zuen. Atera zuten handik indiar gaztea. Haizeak ulu tristea egiten zuen Hiletaren Ibilbidean.

— Ba al duzu zer esatekorik? — galdegin zion John Maxim jaunak indiarrari. Honek berriz, neskatoari begiratzen zion.

— Ez, ez dut ezer esatekorik.

— Orduan, buka dezagun ahalik eta lasterren. Kendu hemendik neskato hori. Handik une batera, fusilen deskarga entzun zen. Eta geroxeago tiro hots hotz bat. Errematea zen.

Indiar hark ez zuen aiene bat ere bota.

Kanpalekura itzultzerakoan, zaldi eder baten irrintzia entzun zuten. Han zegoen zutik zaldi zuri ederra.

— Arraioa! — esaten du Harris jaunak. Oraindik bizi al da?

Zaldi hura bost bat segundutan egon zen zutik. Gero, ordea, azkeneko irrintzia jaurtiz, lur jo zuen.

II

— Devandel jauna — esaten dio Maxim jaunak —, Gautxori hil da. Ez dakit zer odoletakoa zen. Behar bada, siux, txeieneedo arapaho. Berdin da. Bat gutxiago.

— Hil da, hil da! — erantzun dio koronelak —. Eta horrekin asko pozten naizela uste al duzu?

— Eta zergatik, bada? Ez da fusilatzen dugun lehenengoa, ezta?

— Ez, ez da lehenengoa, ezta bigarrena ere. Baina, hau desberdina zen. Hilketa bat izan balitz bezala harra sortu zait barruan.

— Belazeko Lege Zorrotza bete besterik ez duzu egin.

— Bai, hala egin dut. Baina, zein gogorra den guda!

— Devandel jauna: entzun al duzu zaldiak bota duen azkeneko irrintzia?

— Bai, entzun dut, bai. Bizirik al da oraindik?

— Bizirik zegoen, baina jada ez. Nahiago nuke. Sekula ez dut ikusi halako zaldi zuri eta ederrik.

— Zuria esan al duzu?

— Bai, koronela.

— Besteak baino handiagoa tamainaz?

— Ikaragarria tamainaz. Besteak baino handiagoa.

Orduan, koronela aulkitik altxa eta ezinegonik paseiatzen hasi zen gela barruan:

— Baina, ze gauzak ari dira gaur gauean gertatzen? Ze zoritxarrak dauzkat nere zain? Badira hogeit hamar urte haien zain nagoela.

— Zer gertatzen zaizu, koronela, zer? — galdetzen dio John Maxim jaunak.

Baina koronelak ez zion erantzun, eta zaldia ikustera joan zen.

Iritsi zenean lauzpabost hegazti harraparik hegan egin zuten. Sarraskiaren zain zeuden. Koronelak berriz, hura ikustean, oihu latz bat bota zuen:

— Red, nere Red. Hogei urte pasa dira eta oraindik ezagutzen dut. Indioen ipuinetako zaldia zen. Nolatan etorri zara nire ingurura hiltzera? Nork eman ote zion indiar gazteari?

Eta haren ondoan John Maxim zeharo harrituta.

— Eta nik, han utzi ditut nire semeak etxaldean! Emakume hark aurkituko ditu eta desegingo! Orain batik bat, ze indioen hiru tribuak asaldatuta baitaude!

— Koronel jauna, ikus dezagun: zer ikusia dute zaldi honek, emakume batek eta zure semeek? Badira sei urte elkarrekin borrokan ari garela. Eta ez didazu sekula horrelako ezer ere esan.

— Hobe izango da behingoz kontaktzea. Horrela lasaitu egingo naiz gutxienez.

Berriro dendara sartu ziren eta sua indartu zuten. John jaunak Ginebra botila eskaini zion koronelari.

— Ea, edan ezazu, honek ausardia emango dizu eta.

Koronelak berehala basokada Ginebra edan zuen.

— Esatera noan hau duela hogei urteko gauza da. Hasi berri nintzen belazetan gora eta behera. Ehiztari hutsa nintzen. Artean indiarrek azal zuriko gizonen beharra sentitzen zuten.

Bai armak lortzeko, bai edariak eta jantziak lortzeko. Batzuek ez ziren itzuliko. Baina horrek ez ninduen beldurtzen. Harreman onak nituen indiar batzuekin. Baina halako batean siux izeneko indioen hatzaparretan erori nintzen.

— Haiek dira, hain zuzen, belazeko gaiztoenak — esan zion John jaunak.

— Ezagutzen al duzu Zaldi Zuriaren ipuina? — galdetu zion koronelak.

— Beno, zenbaitetan entzun izan dut, badela zaldi bat hemen besteak ez bezalakoa, zuri-zuria, lepagaina iletu eta buztan oparoz hornitua. Eihztarien hatzaparretatik ihes egiten dakiena. Baina, badakizu, hainbeste gauza entzuten baitira. . .

— Bada, orain badakizu; ipuin hori egia da. Baina jarrai dezadan aurrera. Indioen

hatzaparretan nengoen ni. Eta galdutzat jotzen nuen nire burua. Halako batean Mohati-Assah tribu buruak deitu ninduen eta esan:

— Badakizu gure ipuinetan sarri aitatu ohi dela zaldi zuria? Bada, hemen inguruan dabil. Ikusi berria dute. Oraindaino inork ez du harrapatu ahal izan; zu izan zintezke gauza. Hala egiten baduzu, libre utziko zaitut. Eta ez hori bakarrik, baita nere alaba emaztetzat emango dizut ere. Eta uko egiten badiozu, oinaze makilara eramango zaitut, eta zure ilegorria, nire ezkutuaren hornigarritzat hartuko dut.

Beraz, pentsa dezakazunez, onartu nuen erronka hura.

Hurrengo egunean han ikusten nauzu belaze berdean aurrera eta aurrera. Zaldi zuri eder haren bila. Non aurkituko nire bizia salbatuko zuen zaldi haren bila.

Indiarrak inguruan nituen nire zain.

Horrela igaro nituen aste batzuk. Halako batean, begira non ikusten dudan zaldi talde bat. Eta haien artean hara non ikusten dudan bat besteak baino handiagoa, ederragoa, zuriagoa.

Ipuinak ipuin, zaldi zuri ederra hantxe zegoen.

Bakarrik ez nintzen ausartu harrapatzen. Eta laguntza bila itzuli nintzen. Alferrik, ordea. Ze zaldi zuria desagertu egin baitzen.

Baina han jarraitu nuen. Berriro azaltzen bazen, ez zidan aldegingo. Ez horixe!

Pasa ziren beste egun batzuk. Ilunabar batean, berriro ikusten dut zaldi zuri bedeinkatua beste bospasei beltzen artean.

Zaldi beltzak asaldatu egin ziren eta iheseri eman zioten. Baina zaldi zuria zuhaitz baten aurrean, zerbaitek larritu balu bezala gelditu zen.

Abiatu nintzen beregana tximista baino azkarrago. Inguratu nintzaionean, sekulako ikuskizuna azaldu zitzaidan nire begien aurrean. Zaldien Errege geldi-geldi zegoen zuhaitz gaineko sugetzar bati begira.

Sugetzarra hiltzea bururatu zitzaidan. Baina, ez nintzen ausartu, ekitaldi hartan zaldia zauritu ez zedin.

Hasi ginen, bada, borroka bizian, sugea eta ni. Atera nuen nere mendi- labana.

Zaldiak ez zuen ihesirik egin. Eta hantxe egon zen erne, begira.

Sugea hil zenean, poz intziriak bota zituen eta bere lepo ederra nere aurrean jaitsi zuen. Eskerrak eman nahi izan balizkit bezala.

Bazirudien zaldiak bere gainean jartzera gonbidatzen ninduela. Heldu nion lepagaineko ile-tatik eta atera zen handik tximista baino ere bizkorrago.

Siux tribuen kanpalekuan irabazle bat bezala sartu nintzen. Ikusteko zen haien harridura ni zaldi haren gainean ikusita.

Mohati Assah jaunak hala esan zidan:

— Manitu Jainkoak lagundu zaitu. Gaurtik aurrera, zure bizitza sakratua izango da guretzat. Lehendik zin egin nuen, zaldi hori harrapatzen zuenarentzat izango zela nire alaba. Beraz, zurea da Jalta nere alaba. Har ezazu.

— Eta zer? Halako indiar gorrotagarri batekin ezkondu zintuen, ezta?

— Ez pentsa batere itsusia zenik, Eder- ederra zen. Baina odol desberdinekoak izan eta gure artean laster gorrotoa izan zen lege. Bera izan ohi zen gudari gogorrena. Gatibuak kupidarik gabe zigortzen zituen. Gero eta gogorrago egiten zitzaidan etsai batekin bizitzea. Beraz, ihes egitea erabaki nuen. Egun batean, ekaitza egiten zuen. Hark sortu zuen aztoramena aprobetxatuz zaldi zuriaren gainera igo eta alde egin nuen. Pasa ziren urteak. Mexikoko gudan parte hartu nuen. Diru dezente irabazi nuen eta mexikar batekin ezkondu nintzen. Gero San Felipe deritzaion etxaldea sortu nuen.

— Eta Jalta, zer? - galdetu dio John Maxim jaunak.

— Ahaztu ere egin nuen ia. Baina egun batean, nire langileek etxaldea gezi bat aurkitu zuten. Gezi haren punta odolez margotuta zegoen. Badakizu zer esan nahi duen horrek.

— Indioentzat mendeku seinalea da hori — esan zion Johnnek.

— Hori da. Jalta nire atzetik ibili zen, eta, azkenean, aurkitu ninduen. Nire seme-alaben beldur nintzen batipat: Jorje eta Mary. Ama aspaldian hila baitzen. Ehizera nindoanean batez ere, beldurtzen nintzen. Hirutan nahi izan zioten etxaldeari su eman, eta beste hirutan hil nahi izan ninduten. Azkenik, bazter hauek uztea ere pentsatu nuen. La Sonora aldean baditugu emaztearen aldetik lurrak, eta hantxe finkatu nahi nuen. Baina gero, ordea, guda madarikatu hau sortu da, eta hementxe naukazu. Gobernuak gudari zahar guztiei dei egin zien. Prestatzeko gudarako. Eta ni honantza bidali ninduen, beharbada inguruan den lekurik

garrantzitsuenetako bat. Hau baita siux tribuaren atea.

— Siux tribuaren atea. Beraz Jaltaren gudarien atea, ezta? Baina, nola ez zenuen zaldi hori zurekin eraman?

— Indiar batzuek lapurtu zidatelako. Beharbada Jaltaren menpean zeuden indiar batzuek.

— Eta ez al zenuen emakume horrengandik seme alabarik eduki?

Koronelak kezkatu begitaru zion indiar agenteari:

— Bada, egia esateko, ez dakit. Hiru hilabete besterik ez nituen tribu horrekin egin eta...

— Ia ia damutua nago indiar hori hil dudalako — esan zion orduan John Maxim jaunak — . Berak esango zigun zerbait. Beharbada. Akaso neskak mingaina askatuko balu. . . Beharbada gauza asko argituko lizkiguke.

Minnehaha han zegoen, lo itxurak eginaz. Bapatean, tiro hotsak entzun ziren:

— Hartu armak, hartu armak. Indiarrak datoz...

Koronela eta gidaria irten ziren kanpamendutik trumilka. Mendi zintzurrera abiatu ziren. Han pertsona askoren itzalak nabari ziren.

— Bakoitza bere postura! — deihadar egin zuen Devandel jaunak.

Kantuak baino bizkorrago, gudariak mendi lepoan zabaldu ziren. Devandel zelatariengana zuzendu zen. Hauek Harris eta Jorje ziren. Indiar batek mendi lepoa gurutzatu nahi izan zuen. Tiro egin eta bertan hil zuten. Baina nola jakin gabe Gautxoriaren gorpua askatu eta beraiekin eraman zuten.

Gauzak bere onera ekarri baino lehen, oihu berri eta larri batzuk entzun ziren Hiletaren Ibilbidetik:

— Ikkistkota-k datoz, ikkistkota-k datoz...!

III

Koronela eta John dendetara itzuli ziren bitartean, gudari boluntarioak mendi lepoan finkatu ziren.

John Maxim maltzurak zerbait hartu berria zuen indiarren eskutik. Paper bat zen, eta koronel jaunari erakutsi zion.

Hartu zuen Devandel jaunak paper hura. Gutun bat zirudien. Irakurritakoan, hainbeste larritu zen, ze lagunarengan bermatu beharra izan baitzuen ez erortzeko.

Eta orduan gidariak:

— Koronel jauna, koronel jauna, zer gertatzen zaizu?

— Banekien bai, banekien! — erantzun zion honek —. Nire seme-alabak, nire seme-alabak!

— Hil al dituzte?

— Ez oraindik. Baina, paper hau agindu bat da. Ezkerrari agintzen diote. Ezkerra arapahon leinu burua da. Bestea Galdara Beltza da. Bi hauei agindua ematen die: hiltzeko nire seme-alaba eta desegiteko etxaldea.

— Eta nork izenpetzen du?

— Jalta sorginak!

Indiar agenteak zelatatxo bat egin zuen dendatik. Oraindik ere han ote zeuden delako ikkistkota madarikatuak. Baina bazirudien kanpoan isiltasun lasai bat nabaritzen zela.

— Edan ezazu, koronel jauna — esan zion — etsaiak atzera jo dute eta.

— Ez ote da hemendik beste korreo eta ho- rrelakorik pasa?

— Ezinezkoa da. Bestela, ondo ikusiko genituen. Ez ezazu dudarik izan.

Baina koronela ez zegoen lasai:

— Nire seme-alaba, nire seme-alaba! — zioen behin eta berriro.

— Ezin duzu mendi zintzur hau utzi. Ez ezazula horrelakorik pentsa. Bestela, siux gorrotagarri horientzako bidea zabalik geldituko litzateke. Orduan bai galduak ginatekeela.

— Bai, bai, badakit nik hori. Baina nire seme-alaba, zer?

— Beno, beno — esaten du John Maxim jaunak — Bidal nazazu gudari boluntario batzurekin. Guk salbatuko ditugu zure umeak. Ezkerra baino lehen iritsiko gara. Ez ezazu zalantzarik izan.

— Baina, hori hain baita arriskutsua. Ze, belazeak indiar asaldatuen mendean baitaude — esan zuen koronelak.

— Baina ez da ezinezkoa. Ea, anima zaitetz. Lagun diezadatela Jorje eta Harris gudariak. Hauek badakite ongi asko Azal Gorri indiarren berri. Nirekin eramango dut Minnehaha. Ongi etorriko zaigu.

Beraz, denborarik galdu gabe, John Maxim jaunak fusila eta bi pistola hartu eta Minnehaha neskatoa esnatu zuen. Deitu zien bi zelatariei. Eta abiatzeko prestatu ziren. Koronelak agur bero bat bidali zien.

— Eta neska indiarra, non?

— Egon piska bat, oraintxe bertan bidaliko dizut.

Eta denda barrura sartu zen. Baina une hartantxe, Minnehaha neskatoak matxete bat bizkarretik sartu zion koronelari gogorki. Gezurra zirudien neska txiki haren gorrotoak. Eta honela zioen matxetea sartzen zion bitartean:

— Orain siux tribuak bidea zabalik izango du pasatzeko.

Eta tximista bezala atera zen kanpora galdetuz:

— Non igo behar dut?

— Jarri nire ondoan — erantzun zion John jaunak. Eta eskutik heldu, eta igotzen lagundu zion.

Abiatu bezain laster, berriro mendi lepoan tiro zaparrada hanndia entzun zen. Berriro siux indiarrek erasotzen ari ziren. Amorru biziz. Mendi lepo hura hain baitzuten beharrezko indiarrek. Han mozten ziren haien ibilbide guztiak. Hura menderatzen bazuten, belazeetarako

bidea zabalik geratuko zitzaien. Eta gainera, laster etortzekoak ziren ekialdetik (sortaldetik) txeieneindiarrek. Eta mendebaldetik arapaho tribukoak. Nola elkartu mendi zintzur hura igarotzen ez bazuten?

Tiroketa hura entzutean, hiru bidaiarien zaldiak ere urduri jarri ziren. Itzultzeko gogoia sentitzen zuten. Baina, ezin, koronelaren umeak arriskuan zeuden, eta haiek ez salbatuez gero, nork egin zezakeen? Beraz, aurrera jarraitu zuten.

Orduak eta orduak ibili ziren. Zaldi eder haiek erraz zihoazen aurrera oinkada arin eta bizian. Egunsentiak argitu zuenerako pinuak eta zedroak azaltzen hasi ziren. Seinale garbia belazeak, zelai zabalak, inguruan zeudela.

IV

Amerikar abenturazaleak aspalditik zebiltzan ibili indiar lurretan. Beren ibiltze horretan, zer lur ikusi, hartaz jabetzen ziren. Azalpenik gabe. Beraz azal gorriek barru- barruko gorrotorik biziena sentitzen zuten gizaseme zurien aurka. Are eta gorroto gehiago, ze azal zurikoek haien arraza desegin nahi baitzuten.

Ez zioten kolono zuriari egunik barkatzen. Beti prest zeuden erasotzeko. Baina batzuetan beren artean ere haserretzen ziren eta erasotzen.

Baina azkenik, eta bazen garaia, pentsatu zuten elkartu beharra zegoela. 1.863garren urtea zen. Eta elkartasun hori gabe, hiltzera eta ezabatzerara zihoazen dudarik gabe. Beraz, bere etsaiekin elkartu ziren azal gorriak: Belazeak indiarrentzat! Hori zen guda deihadarra. bestela galdu gara.

Hori baitzen egia. Kolonoak nonahira iristen zirelarik, lurra erein eta landatzen zuten. Eta orduan eta ehizarako lur gutxiago indiarrentzat. Hauek ehizatik bizi baitziren batik bat.

Azal gorriek alferrik azaltzen zituzten beren kexuak. Ipar Ameriketako lehendakariak ez zuten ezertxo ere egin gauzak hobetzeko. Alderantziz, ze betiko lurralde haien nagusi izan zen indiarra ezabatu nahi baitzuen gizon zuriak.

Hori ikusirik, indiarrek bere aldetik zuzendu nahi zituzten gauzak. Eta nozbehinka enbata bezala etortzen ziren gizon zurien aurka.

Beraz, hiru tribu elkartu ziren: Sioux izenekoak, denetan indartsuenak; txeieneeta arapaho indiarrek. Denen helburua gizon zuria desegitea zen. Indiarren matxinada gogor hura ikusi zuen gobernuak ere. Gudari boluntarioak bidali zituen. Baina ia denak indiarren esku hil ziren. Denak ez, ze Devandel koronelak, larri, baina bere larrua salbatu zuen. Eta Laramie izeneko mendi lepoan babestu zen bere berrogeita hamar gudariek.

* * *

Iritsi ziren azkenean zelai zabaletara. Zein bide hartu behar zuten eta abar erabaki zuten hiru zaldunek.

Zelatariari jarraituko zioten eta, ahal zuten azkarren, korreoarekin elkartzen saiatuko ziren. Bazan han nonbait Salado izeneko laku bat. Harantz abiatuko ziren, handik pasatzen baitzen korreoa.

Beraz, urrats bizian abiatzera zihoazenean, Jorjeren zaldia aztoratu zen.

— Sooo! — esaten du Jorjek —. Norbait dago hemen nonbait ezkutatuta.

Beste bi lagunak fusilak prestatzen hasi ziren. Eta Jorjek:

— Norbait ezkutatuta dago hemen. Nire zaldiak zerbait nabaritu du.

Berehala belar luzeen atzetik zaldi baten irrintzia entzun zen. Denak geldi-geldi zeuden nor azalduko zain. Laster beste irrintzi bat. Baina ez zen inor azaldu.

~ Zaldi basatiren bat izango da — esan zuen gidariak —. Ingura ditzagun belar hauek eta egon gaitezen erne.

Une hartan zaldi bat azaldu zen belar luzeen artean, zela eta guzti. Tximista baino arinago zihoan, urrutiko zuhaitz artean galdu arte.

— Nor ote da bere jabea? Begira dezagun.

Hitz hauek bukatu baino lehen, egundoko oihu garratz bat entzun zuten inguruan. Bi pistola tiro ere entzun ziren.

— Aurrera lagunak — esaten du Johnek —. Norbait hiltzen ari dira.

Hiru gizonak aurrera jo zuten, ibai uholdetuaren ingururaino. Gizon altu bat ikusi zuten uretan sartuta hartz beltz handi baten kontra borrokan.

Gizon hark laban zorrotz eta luze bat zeraman eskuan. Eta han ari zen jo hemendik eta jo handik, hartza nola menderatuko. Baina hartza, hain handia baitzen, eta zaila izaki hura menderatzea. Hiru gizonak oihu latzak bota zituzten hartzaren atentzioa bereganatzeko asmoz. Baina, animalia haren begiak sutan zeuden, etsaiaren kontra sua zeriela. Zaurituta zegoen. Eta animalia zauritua baino etsai okerragorik ez dago. Hiru gizonak, berriz, fusilak harantz zuzentzen zituztela, noiz hartz madarikatu hura tiroz josiko.

Une batean, ordea, hartzak alde batera mugitu zuen lepoa, une batez zerbaitek atenzioa irabazi balio bezala. Geldirik egon zen instantea aski izan zuten ehiztariek, perdigoie eta bala zaparrada bere kontra botatzeko. Hartzak bere sabela zauritua sentitu zuen. Hasi zen mozkor bat bezala balantzaka, eta laster lur jo zuen, bere gorputz haundi harekin.

— Hil da — esan zuen Harris jaunak —. Ez dut behin ere hain animalia basatirik ikusi.

Jaitsi ziren zaldietatik eta ibai uholdetura inguratu ziren. Han zegoen gizona oraindik ere larri aurpegiarekin, neka-neka eginda. Hor nonbait ibili baitzen hartzarekin. Eskerrak hiru haiej, bestela heriotza ziurra zuen.

Gizon hura altua zen, ez lodi ez mehe, ez zahar ez gazte. Bazirudien ikaragarritzko indarra zuela gorputzean.

Zein odolekoa ote zen? Zaila galdera, ze Mexikoko gambusiar jantzita baitzihoan. Urre bilatzaileak hala ibiltzen ziren.

Ez zirudien zeharo indiar. Odol-nahasi antza gehiago zuen.

— Egun on jaunak — esan zuen —. Bizia salbatu didazue!

— Ba! Hori ez da ezer. Hori ere belazeko legea da. Ez al da normala zelai hauetan arriskuan dagoenari laguntzea? Zer zabilta, urre bila-edo?

— Halaxe nabil bai — erantzun zien ezezagunak —. Meategi bila nabil.

Une batez, ganbusiarrak, neska indiarrari begiratu zion.

Elkar begiratu ziotenean, halako zirrara berezi bat nabaritu zuten biek ala biek; hitzik gabeko hizketa. Besteak ez ziren horretaz jabetu.

'Minnehaha neskatoak irribarre ere egin zion. Nondik zatoz? — galdetu zion John jaunak.

— Mendietatik — erantzun zion gabusiarrak. Laramie aldetik?

— Bai jauna.

— Eta ez al zaituzte siux indiarrek eraso?

— Beno, eraso, eraso... Ganbusiar bat, bere etxean bezala ibiltzen da lurralde hauetan. Zaila da, beraz, ganbusiar bat harrapatzea. Eta zuek zer? Ez zarete ba Devandel koronelaren mutilak izango? Zera, Hiletaren zintzurrean egon ohi diren horietakoak, bai ala? Egia al da?

— Bai, egia da. Eta zuk guzti hori dakizula, nola ez diozu zure fusila berari eskaini?

— Nola ba? Nire azalez indiarra dirudit. Aski litzateke nire azala ikustea beste mundurako pasaporte lortzeko. Espiritu Nagusiaren ingurura bidaltzeko.

— Arrazoia duzu, bai. Eta orain nora zoaz?

— Indiarren matxinadatik iheska noa. Norabiderik gabe. Eta zuek, nora zoazte?

— Kanpa aldera — erantzun zion Johnek — Salado lakutik ateratzen den korreo batekin elkartu nahi genuke. Gu ere iheslariak gara.

Ganbusiarrak irribar zital bat bota zion.

— Gudari iheslariak! Ez dut sinesten — esaten die —. Beste eginkizunen batera joango zarete zuek, ezta?

— Badaiteke, badaiteke — moztu zion indiar agenteak —. Gurekin etorri nahi al duzu? Nik, bai pozik, zuek ados baldin bazaudete.

— Itzuliko al da zure zaldia?

— Horixe baietz, hark ez du nire arrastorik galduko, ez.

— Zoaz ba bere bila. Guk bitartean hartzaren hankak egosiko ditugu. Goseak gaude eta. Gaur gaua Sarraskiaren Misioan pasa behar dugu. Beraz azkar ibili.

— Ondo dago. Laster naiz hemen.

Gizon hark berriro neska indiarrari begiratu zion. Eta honek hari. Ezagunak ote ziren, bada? Hartu zuen bere labana eta zaldi bila joan zen.

V

Hiru gizonak atzetik begiratu zioten gizonari. Bai tipo xelebrea. John eta Harris hizketan hasi ziren:

— Zer derizkiozu adiskide — galdetzen dio Indiar agenteak —. Hauxe bai tipo xelebrea. Nahiago nuen aurkitu ez bagenu.

— Bada, ez dio axolik. Bera bat da, eta gu hiru. Komeni ez bazaigu Kanpara iristean tiroka emango diogu pasaporteak.. .

Harris isilik geratu zen. Minnehaha isil- misilka baitzetorren haien ingurura. Hizketaldia entzun nahiko balu bezala.

— Zer egiten duzu hemen, neska — John Maximek —. Zertan ari garen entzun nahi al duzu?

— Ez, ez, errekaeren soinua entzutera inguratu naiz.

— Ba, zoaz urrutiago, arranopola!

Neskatoa harkaitz baten gainean tinkatu zen. Handik ikusi eta entzun zezakeen ibaiaren burrundara. Apar apurtxoak ere bereganaino etortzen zitzaizkion.

Harris eta Johnek elkarri begiratu zioten.

— Neska honek lanak emango dizkigu —esan zuen Harrisek.

— Nik ere halaxe pentsatzen dut — erantzun zion Johnek —. Infernukoa dirudi. Bere begirapenak beldurra ematen dit.

Une hartan ganbusiarra azaldu zen, bere zaldi ederraren gainean. Hanka luze eta lepa-zurda ederreko zaldia, benetan.

Prestatu ziren abiatzeko. Hartzaren zati batzuk gorde zituzten janari gisa. Beste guztia han geratu zen, otsoen janaritarako.

Prestatu zituzten fusilak eta abiatu ziren bizi-bizi.

Eguerdia iritsi zen, eta zaldiak deskantsu on baten beharrean zeuden. Atsedena eta janari ona

behar zuten. Arto gailetak eta belar gozoa.

Siesta garaian otso talde baten uluak entzun zituzten. Arranopola! Ez zen hura oso bisita atsegina. Alde batetik; bestetik, ordea, seinale ontzat eman zitekeen, ze otsoak indiarrengandik urruti ibiltzen baitira. Badaezpada ere. Hala ere, alukeria bat zen haiekin toreaketan hasi beharra. Eta haien ulu garratzek ez al zituzten inguru haietako azal gorriak ekarriko? Auskalo!

Bazihoazen aurrera eta aurrera. Eguraldiak aurpegi beltza ipini zuen. Eta laster hasiko zen ekaitza. Hala zirudien behintzat. Esan bezala, berehala ekin zioten tximista eta trumoiak, bidea argitzeraino. Eta atzetik otsoak.

Azkenik ara non ikusten duten Sarraskiaren Misioa. Gero eta zaharragoa eta eroriagoa. Baina hantxe. Hormak ikaragarritzko pitzatuekin, dorre bat trinkoagoa.

- Ara, ara Sarraskiaren Misioa — oihu egiten du Johnek.
- Arranopola! Hemen ez ziren indioak txantxetan ibili — esaten du Harrisek.
- Ez ziren indiarrek izan. Mexikarrak izan ziren. Lepero deritzaie. Heldu zaldiei uhaletatik eta sar gaitezen barrura. Ea non pasa dezakegun gaua.

Itzulitxo bat eman eta sartu ziren.

Sabaia erorita zegoen. Hormak pitzadura handiekin. Inguruan bazen zerekin su egin. Ze dena habe eroriaz, ohol zaharkituez josia baitzegoen. Sua egiteko behintzat arazorik ez. Hartzaren zatiak berotuko zituzten afaltzeko.

Haragi usain hark, otsoen gose glandulak bizitu zituen. Ulu gosetu eta odoltsua botatzen zuten. Kanpoan zeuden erasotzeko gaua etorri zain.

Eta Johnek:

- Ez dira asko, eta ez dut uste gure aurka ausartuko direnik.

Eta Harrisek:

- Aspaldi xehezu al zuten Misio hau? — galdegin zion.
- Badira hamar urte. Misiolari batzuk etorri ziren honantza azal gorriak kristautzera. Eliza hau altxatu zuten. Baina azal gorriak ez ziren hainbesteko arazo. Okerragoak ziren lepero izeneko bide lapurrak. Gobernuak izan zituen hamaika buruauste beraiekin.

- Eta gero erruak indiarrei botatzen zizkien, ezta? — erantzun zion gabusiarrak.
- Bai jauna, hala gertatzen zen — esan zuen indiar-agenteak —. Gobernuak gudari talde boluntario bat bidali zuen haien kontra. Lapurrak, ordea, Misio honen barruan babestu ziren. Gu azaldu ginenean tiroka hartu gintuzten. Ni ere tartean nintzen eta horregatik ongi dakit hemengo berri.
- Asko al zineten? — galdegin zion Jorjek.
- Ehunen bat edo baginen. Gero, ordea, tiro hotsak isildu ziren. Barrutik ez zutela erantzuten eta sartu ginen, bada. Han ikusi genituen ehunen bat fraile lurrean etzanda, hankak eta eskuak zeharo lotuta.
- Baina bizirik, ezta? — galdetu zion Harrisek.
- Egon, egon piska bat. Gero Misio guztian ibili ginen lapurren bila. Baina ez genuen ia inor aurkitu. Leihotan hiruzpalau hilak, besterik ez. Fraileek ziotenez, behar bada irtenbide sekreturen batetik aldegin zuten. Bestela ezin zitekeen ulertu. Fraileen nagusia kanpoan omen zen nonbait, erlijioa erakusten. Hartan ari ginela, fraile guztiak kanpora atera ziren nagusiarengana zihoazela esanaz. Hari esan behar ziotela eta zer gertatu zitzaien. Guk ez genien ezezkorik esan. Normaltzat jo genuen. Baina, ba al dakizue zeintzuk ziren fraileak.
- Gaizkileak, ezta? — oihu egin zuen Harrisek.
- Bai, jauna. Gaizkileak beraiek. Fraile guztiak hil eta gela batean metatu zituzten, zaku zaharrak bezala. Gero haien jantziak zituztela, disimulo ederrean alde egin zuten. Geroreago aurkitu genituen fraile gizagaixoak denak hilda, era lotsagarri hartan.
- Hori duk hori!
- Haiek bizkorrak — esan zuen Johnek.

Eta ganbusiarrak:

- Hori duk hori adarra jotzea.

Baina ez ziren luzaroan ondo ibili. Ze gure kapitaina biziki hasarretu baitzen halako irriarekin. Ez zuen atsedetik izan haien aztarrenak bilatu arte. Behin Korreos bisitatu behar zuela eta, abiatu ginen bere mendean. Gau txarra zen. Hotza eta elurra. Baina guk ez genuen ez hotzik ez nekerik sentitzen. Ze eskaini ziguten ordaina berebizikoa baitzen.

Gau erdia zen. Eta gu Misio honetara inguratu ginen. Gaizkile haiek sotoan zeuden, asko, jan eta edan. Ez zuten halako bisitarik espero. Aztoratu ziren gure berri jakin zutenean. Guk errenditzeko esan arren, haiek tiroka hartu gintuzten. Gu lasai. Pilatu genuen hainbat egur eta su eman genion. Hura zen ikuskizuna! Lapurrak zeuden sotoa infernu bihurtu zen. Hango negar intziri eta oihu latzak! Han erre ziren denak.

— Gure haragi hau ere erreko da deskuidatzen bagara — esan zuen Jorjek.

Berehala murre arteko pitzadura guztietatik otso mutur luzeak azaldu ziren, haragi usain gozoak zirikatuta.

Anda demonio, esaten du Johnek, bisitariak dizkiagu.

— Adiskideak — dio Johnek —, afal dezagun azkar eta aurrera dezagun egurra!

Eta ganbusiarrak: su bikain bat egiten badugu, ez dira inguratuko.

Otsoak han zeuden gizon haiei begira, inguratzera ausartu gabe. Baina haragiaren usaina! Hain baitzen zirikagarria!

Harrisek:

— Beno, beno, ez dira hain gaiztoak; jaten ere utzi digute.

Eta Jorjek:

— Eta gainera, guk afaltzen genuen bitartean, musika jo digute.

— Anda, demonio — indiar-agentek — ez ibili txantxetan eta pilatu egurra. Zein arriskutan gauden ez ahaztu. Oraintxe edo geroxeago, erasoko gaituzte. Ez zalantzarik izan.

— Lasai gizona, badakigu ongi asko otsoen berri- eta. Hauen lanak egingo ditugu, bai. Eta nork zainduko du neskatxa:

— Kanpora botako dugu — esan zuen Harrisek —. Otsoei gozoa irudituko zaie bere haragia.

Eta ganbusiarrak begirapen zorrotzez:

— Ni hemen nagoen bitartean, ez duzue horrelakorik egingo!

- Indiar bat besterik ez da- eta — Harrisek.
- Niretzako haur bat da, eta nik defendituko dut!
- Uzten badizugu, ezta?
- Beno, ez hasi orain eztabaidan eta begiratu non dauden otsoak.

Otsoak, berriz, kanpoan. Gero eta ugariago.

Hiru gizonak suaren atzean eta zakar pila baten ondoan prestatu ziren borrokarako. Handik desegingo zituzten otsoak. Ganbusiarrak, ordea, neskatoa eskutik hartu zuen eta txoko batera eraman zuen, besteek ikus ez zezaten. Eta horrela mintzatu ziren:

- Zer gertatu zaio Gautxoriri?
- Fusilatu egin dute!
- Ez al zaitu saldu? — ganbusiarrak.
- Saldu banindu, ez nintzen bizirik egongo.
- Eta nola hil zen zure anaia?

Heroi bat bezala.

- Jaltak ez du ahaztuko! Mendeku gogorra emango du. Eta koronelak berak egin al zuen?
- Bai, aita.
- Gogorra da gero aita batek bere seme propioa hiltzea! Hori ikaragarria da!
- Eta egia al da, bada, hori? Gautxori koro- nelaren semea al zen benetan?
- Beno, eta hori zer axola zaizu?
- Beno, baina Gautxori nire anaia zen.,.
- Zu nire alaba zara, ni Jaltarekin ezkondu nintzelako, zure amarekin, alegia. Gizon

zuriak abandonatu zuenean.

Ganbusiarrak fusila hartu zuen, ze otso bat gehiegi inguratu baitzitzaien.

— Baina nik hartu dut mendekua — esan zion Minnehahak.

— Zuk? — gizonak harrituta.

— Ez al zion amak Gautxoriri koronela hiltzeko agindu? Bada, nire anaia hil zenean, nik neuk koronela hil nuen. Bizkarretatik sastakagaia sartu nion.

— Zuk?

— Nik, bai, aita, nik.

— Hain gaztea eta gauza izan zara hori egiteko? Amaren odola daramazu zainetan!

— Baita zurea ere, ezta? Zure odoleko Laino Gorri oso gudari ausarta eta ona izan zela entzun dut.

— Nork esan dizu hori —galdegin zion ganbusiar faltsuak.

— Kanpalekuan entzun dut.

Sasi ganbusiarrak une hartan hiru tiro segidan bota zituen otsoen aurka. Hiru otso hankaz gora bota zituen. Eta gero Minnehahari:

— Ziur al zaude koronela hil duzula?

— Hala uste dut.

— Eta nola ez zaituzte zu hil?

— Ez nau inork ikusi. Une hartan siux leinukoak erasotzen ari ziren. Hiru hauek, berriz, zaldi gainean nire zain. Une berezia izan zen egiteko.

— Zertarako nahi zaituzte zu?

— Ez dakit ba, bahitu bezala edo. Arapaho leinukoa naizela uste dute. Hango buruaren alaba. Eta nolabait nik zer esango dudan zain daude.

- Nora doaz?
- Koronelaren seme-alaba salbatzera.
- Eta Gautxorik ezer esan al zuen bada?
- Ez zuen fitsik esan. Baina badakite nolabait Ezkerra harantz doala etxaldea birrintzera.
- Ondo dago — erantzun zion Laino Gorrik lasai.

Hara bada, gizon hura Laino Gorri zen. Eta jarraitzen du:

- Gu saia gaitezen harantz irits ez daitezen.
- Ez da erraza izango; oso ausartak eta in- dartsuak dira — Minnehahak.
- Bai, bai, hala da, zelai haundi hauetan edozer gauza gerta daiteke.

Eta Laino Gorri otsoen kontra hobeto tiro egiteko urrutiratu zen. Hauek gero eta gogorrago azaltzen ziren.

- John! — esaten du Harrisek —. Etsiko al dugu hemen luzaro? Badirudi gero eta otso gehiago ikusten dela.
- Bai, bai, arrazoia duzu — indiar-agenteak.
- Zergatik ez gara lurpeko tunelara sartzen? — Jorjek.
- Hori egitea izango da onena — Johnek —. Eskailerak zabalak dira eta zaldiak ere jaitsi daitezke. Azkar ibili Jorje; otso alu hauek laster ditugu denak batera gure kontra. Laino Gorrik gauza bera egin zuen. Eta Min- nehaha eta bere zaldia lurpeko tunelara eraman zituen.
- Jaitsi gaitezen — Johnek —. Baina otsoei bizkarrik eman gabe.

Jaitsi ziren denak, eta laster iritsi ziren kriptaraino. Giza hezurak ikusten ziren. Lehen aipatu ditugun gaizkileen hondakinak, hain zuzen. Hurrena, tunelaren sarreran su haundi bat egin zuten. Eta otsoak han egon ziren ulu eta ulu, aurrera ausartu gabe. Azkenik aldegin zuten eta isiltasuna eta pakea zabaldu zen.

- Alde egin dute — indiar-agenteak —. Har dezagun atsedean sutondoan!

Goizak argitu zuen, eta hiru boluntarioak, ganbusiarra eta Minnehaha abiatzeko prestatu ziren. Eguraldia bikaina; ezta laino bat bera ere.

Zaldiak pozez gainezka ekin zioten trakatan alaiari. Haien lepagainak ikustekoak ziren : belaze berde hartan.

Orduak egin zituzten. Indiar-agentek, ordea zerbait ikusi zuen urrutian. Bista ona baitzuen hark. Piztiak edo.

— Badirudi hildakoak ditugula inguruan...! — esaten du.

— Zer bada?

— Begira han piztiak; hildakoren baten inguruan ibiliko dira.

Inguratu ziren poliki, poliki. Beldurrez, sarearte edo tranpa batean erortzeko beldurrez.

Eta hara non ikusten duten gurdi bat, zeharo deseginda. Korreo seinaleak zituen.

— San Luiseko korreoa da! — esan zuen Johnek.

— Hiru zaldi eta bi gizon hilak daude — Harrisek.

— Hil berriak dira — Jorjek.

Inguratu eta frogatu zuten; lantza bitartez hilda zeuden. Haietako bat Johnen ezaguna zen. Oihu egin zuen:

— Patt, Patt, San Luiseko korreo onena! Tarryala indiarrek aspaldidanik agindu zion mendeku hartuko zuela. Eta begira!

— Ezagutzen al zenuen ba? — bi ehiztariek.

— Bai horixe! Korreo eramaile onena zen bera!

— Hau da gero mixeria. Gaur edo bihar gizon ausarta guzti hauek hil beharrean aurkitzen dira. Eta bere ile mataza, azal gorriren ezkutua apaingarri izango da. Honen ilea

Tarryalaren ezkutuan zintzilik egongo da dagoeneko.

Han gelditu ziren, sarraski-egileen beldurrez. Txeieneindiarrek ziren, zalantzarik gabe. Ze fusilak izan arren, lantzaz egiten baitzuten borroka oraindik.

Belarretan eseri ziren. Bitartean ganbusiarra zelatan gelditu zen.

Laster HARRISEK:

— Zergatik ez diguzu azaltzen nor zen Patt eta nor Tarryala? Errazago pasako zaigu denbora.

— Ba, Patt hau oso ezaguna zen inguru hauetan. Korreo eramaile ausartena zen bera — esan zuen Johnnek.

Gau batez Tarant izeneko estaziora iritsi ziren. Han irlandar bat eta bere alaba ezagutu zituen. Denen artean, etxalde eder bat altxa, eta diru pila egin zuten.

Etxalde hura egiten ari ziren bitartean, Tarryala eta bere indioak azaldu ziren. Larrua trukatu nahi zuten. Eta hain zuzen, egin zuten. Baina Tarryalari irlandarren alaba gustatu zitzaion, eta emaztetzat hartu nahi izan zuen. Irlandarrak zeharo ukatu zion. Tarryalak ez zuen fitsik erantzun. Baina larruak polbora eta fusilengatik trukatu zituztenean, zera esan zuen Tarryala delakoak:

— Hau ez dut ahaztuko, aurpegi txuri! Laster izango duzue gure berri.

Geroztik pikardi haundiak izan zituzten bere etxaldean. Behin, landareak sutan aurkitu zituzten. Hurrengo batean, azienda pila hilda aurkitu zuten. Bazekiten, ondo aski, nor zen gaizkile hura.

Alaba bahituko zutelako beldurrez, bahitura hura gerta beldurrez, Patten korreorearen zain egon zen. Eta hala, bere alabarekin ihes egin zuen.

Tarryala ordea, ez zen urruti, eta inguruan gudariak ez zituenez gero, honela esan omen zion Patt jaunari:

— Aizu Patt, zuk zergatik urrutiratzen duzu nire emazte izan behar lukeen neska hori? Zu behintzat itzuliko zara, eta nik emango dizut ordaina, zure ile mataza nire ezkutuaren hornigarri jarriko dut. Pattek ordea ez zion kasorik egin. Ez baitzen beldurtia. Beti bezala jarraitu zuen korreoa eramaten. Baina indiarrek ez baitzuen mehatxua alferrik bota. Eta ikusi nola bete duen bere hitza.

Bukatu zuen azalpen luze hura. Eta bat batean:

— Kea, kea, ikusi kea! Goazen hegoaldera.

Denak begiratu zuten. Faktoriaren bat izan zitekeen. Kanpa, agian?

Kanpa izan zitekelakoan pozik zeuden gure gizonak. Harantz zihoazen lauhazka bizian. Kea gero eta nabariagoa.

Dozena erdi bat mila eginak zituzten zaldi andana bat ikusi zutenean. Behor taldeak ere bai. Seinale ona zen. Ze indiarrek asko saiatzaren baitziren holako zaldien atzetik. Beraz, ez zirudien han inguruan indiarrik egon zitekeenik.

Baina halako batean lau zaldiek irrintzi bizia jo zuten atzeko hanketan tinkatuz.

— Kargatu fusilak — esan zuen Johnek.

Zaldiak ere geldi-geldi zeuden:

— Hemen zer edo zer badugu — esan zuen Harrisek — Tranparen bat edo...

— Noren kontra?— Jorjek — Gure kontra ala korreoaren kontra?

Korreoaren kontra izango da noski — Johnek.

— Pasa ditzagun zelai zabal hauek oinez, zaldiek hanketan minik hartu ez dezaten — zioen ganbusiarrak.

Denak ados zeuden eta aurrera abiatu ziren. Mantso eta arretaz.

Halako batean zarata gogor bat entzun zen segidan ke mordo.

Zer izan da hori? Munizio mordo bat lehertu ote da? — esan zuen Harrisek.

— Behar bada — indiar-agenteak — Prest egon, laster ditugu txeieneindiarrek eta.

Tranpak ipinita zeuden lekua pasa zuten. Berehala, zaldiak lauhazka bizian jo zituen. Ez zen giro izango han indiarrekin topo egitea. Beraz, jo bizi.

Zehargune bat pasata gero karabana bat begiztatu zuten. Karromato batzuk ziren; zaldi sendoak tiraka. Inguratu ziren eta.. .

- Nor da — karromatotik norbaitek.
- Lagunak — Johnek —. Devandel jaunaren indiar-agentea naiz.
- Iheslariak al zarete?
- Iheslariak. Zer bada?
- Zer ba. . .? Siux indiarrek koronel jaunaren kolumna zeharo xehetu dutelako.

Hiru bidaiariak zeharo zurbildu ziren. Eta gero karromatoko buru egiten zuen aitonak:

- Atzo goizean edo gertatu omen da. Bo- luntario batek esan zigun. Bera hain zuzen San Luisera zihoan berri ematera.
- Eta koronela? Zer gertatu zaio koronelari?
- Ez dakigu ezertxo ere.

Johnek beldurrez begiratu zien lagunei:

- Jalta gogor hori izan da. Beharbada bere mende edukiko du koronela. Beste aldetik koronel bat bezalako gizona bizirik harrapatzea ez da erraza. Nahiago baitu hark hil preso izan baino.
- Nondik zatozte? — indiar-agentek.
- Kanpa aldetik. Txeieneindiarren ihesi goaz.
- Zenbat zarete?
- Hogeita zazpi, haur eta emakumeak kon- tatuta.
- Hemendik aurrera, nahi baduzue, hogeita hamaika izango gara.
- Horixe nahi dugula! Lau gizon, onak lirateke guretzat.

Lau zaldunak atzean jarri ziren. Laino Gorri atzerago berriz, alabarekin hizketan:

- Entzun al duzu hori Minnehaha?

— Bai, eta ez dakizu zenbat pozten naizen.

— Zure amak ikaragarria egin du. Mendekua eman du. Haren helburua koronela hiltzea baitzen.

Ez zitzaion axolarik Gautxori hilda ere.

— Koronela, ordea, nik hil dut — erantzun zuen neskatoak harrosko.

— Ai, haurtxoa! Zu zeu ere ez zatoz ama baino hobea. Hura bezain gaiztoa izango zara. Siux odola daramazu barnean.

Eta gero Laino Gorrik:

— Laster Ezkerrarekin elkartuko gara eta San Felipeko etxaldea desegino dugu.

VI

Mendi-katera iritsi nahi zuten. Badaezpada ere Yampa izeneko ibaitik urruti. Ze han indiar asko ibiltzen baitzen.

Hiru gizonak ibilaldirio bat egin zuten, indiorik ote zegoen ikusteko. Ez zuten inor ikusi. Eta atzera itzuli ziren. Une hartan bisonte talde bat azaldu zen. Laster ikusi zituen indiar-agentek.

— Ipar aldera doaz — esan zuen harriturik Harrisek.

— Bai, ipar aldera. Eta harritzekoa da garai honetan ipar aldera jotzea. Beste arrazoi nagusiren bat izango dute bide hori hartzeko — erantzun zuen Johnek.

— Behar bada azal gorriak usaindu eta bide horri ekin diote —erantsi zuen Harrisek.

Orduan John Maxim sargentoarengana joan eta esan zion:

— Ezin gintezke hemen geratu. Mugi eta abia gaitezen. Azal gorriak ez dira urruti eta.

— Baina zaldiak nekatuta daude. Ez dute etsiko — erantzun zion sargentoak.

— Mogallon deritzaion putzutara ailegatu behar dugu. Badago han meazulo abandonatu bat. Hara iristen bagara, salba gintezke—Johnek.

— Sakonak al dira putzuak? — Harrisek.

— Zortzieunen bat metro. Galeria latzak ditu. Han ondo eta seguru egongo gara.

— Baina furgoi hauek ez dira han kabituko sargentoak.

— Gu geuk onik ateratzen bagara ez da gutxi izango.

— Eta zaldiak? — Harrisek —. Zaldirik gabe geratuko al gara?

— Ikusiko dugu. Baina hala balitz ere, berriak ehizatuko genituzke. Ez ahaztu ona naizela ni lazoak botatzen. Beraz...

Eta karabana han zihoan, makal-makal meazulotara iristeko asmoz. Handik onik aterako al dira?, pentsatzen zuten Laino Gorrik eta indiar-agentek.

— Ke usaina dago. Zerbait erretzen ari da zelai zabalean.

Halaxe zen, izan ere. Inguruan sugarrak eta txinpartak azaldu ziren. Sua haiengana zetorren, borobil bat eginaz.

— Hemendik ez gara bizirik aterako—esan zuen sargentoak.

— Ahalegin gogor bat egiten badugu, iritsi gaitzke oraindik meazuloetara — Johnek.
Baina berehala egundoko oihu latzak entzun ziren. Azal gorriak ziren bere guda oihuak boteaz.

— Banengoen ba nik — esan zuen Johnek —. Alu hauek zelai zabalari nahita eman diote su. Guk ihes egin ez dezagun. Presta itzatzue fusilak! Sargentoa, zuk zaindu furgoiak! eta zuek, gizonok, ez urrutiratu nigan- dik. Eutsiko diogu!

Baziren bi egun indiarrek karabanari jarraitzen ziotela. Segada jartzeko unearen zain zeuden. Belarra altua zen, eta ez zen ezer ikusten. Nabari bai, ordea.

Emakumeak aieneka zeuden eta haurrak negarrez. Ekin eta ekin zaldiei. Baina hauek ezin zuten azkarrago joan.

— Noiz hasiko gara tiro egiten? — zioen Harrisek — Desiratzen nago.

— Baita ni ere — indiar-agenteak —. Orain hasiko gara.

Altxa zuen fusila eta esaten die:

— Burura apuntatu!

Eta Laino Gorri Minnehahari:

— Ez dira gutarrak. Txeienetribukoak dira!

— Baina gure lagunak dira, eta ez digute okerrik egingo.

— Lagunak? Zakurraren putza! Balek ez dute lagunik.

— Bada, niri ez didate beldurrik ematen. Egon gaitzen hemen indiar-agente horrek zer egiten duen ikusi arte. Ahal dugunean joan eta koronelaren semea eta alaba harrapatuko ditugu.

Une hartan hasi ziren su zapartak eta tiroak.

VII

Hasi zen borroka gogorra. Indiarrak gorroto biziz. Bere lurraldeen konkistatzaileak baitziren haiek.

Baziren berrehunen bat eta han ari ziren beren ezkutuak mugituaz.

— Eutsi gogor — zioen Johnek —. Zatibitzen baditugu, zerbait irabaziko dugu.

Indiarrak karabatanik berrehunen bat metrora iritsi ziren. Baina kanpamentukoek fusil guztiak martxan jarri zituzten. Indiarrek atzera jo zuten. Ez denbora luzerako, ordea. Ze, ostera gogor itzuli baitziren, gorrotoz beterik. Ez zuten bakerik dena ezabatu arte.

Alferrik izan zen. Azkeneko furgioa bere eskutan erori baitzen. Denak hil zituzten, eta emakumeak esklabutzat hartu.

Berehala beste furgioa. Eta gauza berbera. Gizonak eta haurrak ahiztoz alderik alde pasa, eta emakumeak esklabutzat hartu. Ez zegoen zer eginik. Bakoitzak egin zezala ahal zuena.

— Ihes! Ihes! — oihu egin zuen Johnek. Eta abiatu zen bere zaldi gainean. Tinkatu zizkion ezproinak zaldiari, ezproinak burdinezkoak.

Indiarrek karabana inguratu zuten, borobilean. Gizonak, Harris, Jorje eta Laino Gorrik irtetzea lortu zuten. Ez besteak.

Azkenetara iritsi zirenean indiar batzuk ihes egin zutela konturatu ziren. Eta han hasi zen jazarpen latza.

— Adiskideak! — esaten die Johnek — bizkor ekin diezaiogun. Bestela gureak egin du. Zaldiak bikainak ziren eta eutsiko zioten, noski. Ehunen bat metrora zeuden indiarrak.

— Ekin gogor! Ekin gogor! Laster salba gaitzke eta!
Indiarrak atzetik zituzten. Baina ezin lortu inguratzea. Buru egiten zuenak lortu zuen zertxobait. Gutxi, ordea.

Johnek ikusi zuen hori. Eta lasai begiratu on.

— Hor duk nirea — esan, eta bota zion tiro zehatz bat.

Zaldiak lur jo zuen baina indiarra onik atera zen. Eta Johnek:

— Madarikatua! Izan duk, bai, nahiko zorte on . Hil bahindu!

— Berdin da John. Zaldiak balio du berak hainbat.

Azkenik mendikatea azaldu zen. Hura bai mendikate ederra. Ederra, edo gure iheslariei behintzat hala iruditu zitzaien.

VIII

Hegaka baino bizkorrago sartu ziren galerietan barna. Bagoneta erdoildu eta zaharren tartean.

— Jo bazter batera. Ez zaitzatela kateak harrapa —esan zuen Johnek.

— Zer egitera zoaz? —galdegin zion Harrisek.

— Katea jaitsi. Honela ez gaituzte indiarrek harrapatuko.

— Eta nola irtengo gara gero?

— Egon lasai! Eta azkar! Indiarren zaldi hotsa entzuten da eta!

Laino Gorri, Minnehaha, eta bi ehiztariak galerietan gorde ziren. Johnek berriz, tira zion kateari. Beraz sarrerako atea zeharo itxita geratu zen.

Indiarrak haserre bizian, ez baitzuten sarrerarik aurkitzen.

Barruan ez zen ezertxo ere ikusten.

— Ez dut ezertxo ere ikusten — Harrisek.

— Bada nik zuk baino bista hobea dut eta oroimena ere ez txarra — erantzun zion indiar-
agenteak — Goazen hirugarren galeriatik aurrera. Eguzkirik ikusi nahi badugu behintzat.

— Beste irtenbiderik ba al dago bada? —Jorjek.

— Bai horixe! — Johnek —. Zer, bada? Hemen itotzea nahi al duzu, ala? Laster gara goian. Baina bada bidean traba bat. Laku bat dago eta igeri egin beharko dugu.

— Meategietan grisú izan ohi omen da — esan zuen Harrisek —. Txarra omen da hori arnastea.

— Bai, halaxe da. Baina lasai. Hemen dut seguritateko lanpara eta. Honek esango digu grisurik dagoen. Garra luzatzen bada, seinale txarra. Bestela lasai. Eta, arren, ez piztu beste surik.

Plaza antzeko batera iritsi ziren. Handik galeria asko ateratzen ziren. Johnek haietako batean piztu zuen sua, luzatzen zen ala ez ikusteko. Ez zen luzatu. Beraz:

— Aurrera — esan zuen —. Ez dago grisurik!

Hirugarren galeria hartu zuten. Hura zen bide zuzena. Eskutik heldu eta bazihoazen. Ilunpetan baina pozik.

Noizbehinka zarata sor bat entzuten zen sabaia goitik behera etorriko balitz bezala. Eta Jorjek beldurti:

— Ez al zaitu zarata horrek beldurtzen?

— Ez, trumoiak dirudite — Johnek—. Ekaitza normala da garai hauetan. Okerragoa, zera izan daiteke: lanparak bost ordurako errekin duela eta meategi honetatik ateratzeko denbora gehiago behar dugula. Horrek kezkatzen nau.

Baina seihun metro aurrerago beste lanpara bat aurkitu zuten. Hantxe utzia, eta bere errekin zuena.

— Ai ze ederki etorriko zaigun lanpara hau! — esan zuen Harrisek. Eta gero:

— Ikusi, ikusi, sugarra luzatzen da.

— Itzali azkar, itzali azkar — Johnek —. Bestela denak lehertuko gara eta!

Beste seihun metro egin zituzten itsu-itsuan. Galeria zaharretatik ur tanto lodi-lodiak erortzen ziren lurrera, erreka bat egiteraino. Eta Johnek:

— Hau da, hain zuzen, lekurik arriskutsuena. Zenbat ezbehar izan ote den hemen, ezin da kontatu. Baina lasai, Itsas Hilaren inguruan gaude, eta, beraz, irteera laster aurkituko dugu.

IX

Indiar-agentea buru oneko gizona zen. Ez zen deusik ere nahastu. Berehala laku ikaragarri batera inguratu ziren.

— Hau al da Itsas Hila? — galdetu zion Harrisek.

— Bai ba, haxe da — erantzun zion Johnek —. Baina ez da beste bazterra ikusten. Lehen berrehunen bat metro zituen. Orain gehiago dituela dirudi.

— Ez dio axolarik! Beste aldetik galeriaren bat baldin badu, eta kanpora eramaten bagaitu, igeri egin dezagun behar den guztia — esan zuen Jorjek.

Denak geldirik jarri ziren. Lakuari begira. Baina lakua igo eta igo ari zen. Zarata ikaragarria egiten zuen.

John Maxim kezkatua zegoen. Itoko ote ziren, bada, hantxe. Azkenik fusilak eta munizioak gorantz jaso eta igeriari eman zioten. Laino Gorrik airean zeramen Minnehaha neskatoa. Aurrera eta aurrera. Berehala arroka zapal bat begiztatu zuten. Eta hantxe atsedean hartu zuten. Gutxienez, putzu hura ez zen haraino iritsiko eta. . . Han geratu ziren barruko ekaitz hura amaitu arte.

Amaituko ote zen? Bidaiariak kezkatuta zeuden. Noiz arte egon beharko ote zuten hantxe? Baina, bestela zer egin? Ito eta kitto?

Bost pertsonak hotzez dardarka zeuden bata bestearen arrimuan. Epeldu ezinik. Horretaz gainera, goitik euri antzeko ur tanto lodi jasa erortzen zen. Denak galdezka ari ziren beren kolkorako egoera triste hura noiz bukatuko zen. Han barruan hiltzeak ez baitzuen graziarik. Kanpoan izatea, beno, politagoa izan zitekeen. Baina han barruan?

Geroxeago esaten du Laino Gorrik:

— Ez al zarete konturatzen haizea falta zaigula?

— Bai, arrazoa duzu — Harrisek —. Seguru galeriak urez itxi direla, eta hemen itoko garela.

— Hemen egongo al gara betirako ala? Nik eguzkia ikusi nahi nuke, bada — Jorjek.

— Baita besteek ere — Johnek —. Hartu pazientzia. Ze arraio! Irtenbide bakarra gelditzen zaigu. Sugarean irtenbidea deritzaiona. Bere ondoan amildegi haundi bat dago.

- Eta zergatik deitzen diote honela? — Harrisek.
- Sugeak daudelako, hain zuzen — Johnek —. Handik irten behar dugu.
- Eta sugeren bat balego zuloan? — Harrisek.
- urretik begiratu beharko dugu. Joan nadin ikustera — Johnek.

Hartu lanpara esku batean eta ahoan labaina haundi bat eta igerian abiatu zen. Lagunek ezkututzen bide-buelta batean ikusi zuten.

- Sartu da — esan zuen Harrisek —. Benetan gizon hori ausarta da.

Eta laster Johnen ahotsa:

- Salbatu gara —. Geroxeago berriro ikusi zuten lanpararen argia. Eta denek:
- Ba al dago sugerik?
- Pasadizoan ez. Baina kontuz. Beharbada txokoren batean. . . Badaezpada ere eraman labaina eta fusila prestu.

Ahal zuten azkarren pasa zuten bide hura. Handik hamar minutura aire librean zeuden. Eta Johnek:

- Eeerne! Eeerne! Amildegri baten aurrean gaude eta.

Haien oinetan amildegri ikaragarria ikus zitekeen. Zaila zen aurrera jotzea. Baina bazegoen arroka kantoi bat ibiltzeko bezainbatekoa.

Berehala Jorjek:

- Ikusi, ikusi sugeak!

Ilara luze-luze bat ikus zitekeen han aurreraxeago. Denak bata bestearen atzetik arroka zulo batetik ezkutatu ziren.

- Ibil gaitezen agudo! — Harrisek.

Eta gidariak:

- Lasai, denak ezkutatu arte, egon lasai.
- Eta batenbatek erasotzen bagaitu?
- Ez dut uste. Ikusiko dugu.

Baina sugeak ezkutatu ziren. Eta bidaiariak harkaitz-kantoitik aurrera jo zuten. John Maxim aurretik. Baina hau geldi-geldi geratu zen.

- Eta orain zer gertatzen da? — Harrisek — Berriz ere sugeak ala?

Baina Johnek ganbusiarrari begiratu zion:

- Ez al duzue ezer entzun ala?
- Bai, zerbait bai. Kurruska bat.
- Hartz gris batena edo...?
- Horrelako zerbait — indiarrek —. Erasotzen bagaitu, amildegira eroriko gara.

Johnek berriro entzun zuen kurruska latz hura. Eta:

- Erne, erne! Bakoitzak bila dezala beretzako babes. Arriskuan gaude. Bitartean ni ikustera aurreratuko naiz.

Berehala ikaragarritzko hartz beltz bat begiztatu zuen. Jo zuen atzera lagunei azaltzera. Harkaitz kantoian bertan zegoen. Barrura begira. Seguru asko harpe barrura joango zen.

X

Indiar agentea lagunengana itzuli zen

— Erne ibili, hartz ikaragarri bat da, eta hona dator! —

Une hartan, neska indiarrek harkaitz-zulo bat begiztatu zuen:

— Sartu hor! Sartu hor! Denontzat lekua badago!

Ez zen zulo haundia baino nahikoa denak sartzeko. Han etzan ziren, isil-isilik, badaezpada ere.

— Hartz horrek nabaritzen ez bagaitu, joaten utziko diogu. Gogorrek dira, eta, hamaika bala bota arren, ez genuke hain erraz hilko.

Han zetorren hartza. Lasai, bideko landareak janaz. Eta zuloaren ondotik pasa zen. Ez zuen gizasemeen aztarrenik usaindu.

Abenturazaleak lasaitu ziren. Baina, bat batean, hartza zerbait entzun eta usaindu balu bezala geratu zen.

— Nabaritu gaitu — oiuhu egin zuen Johnek — Prestatu zaitezte borrokarako.

Han itzuli zen hartza marruka bizian ibiltarien aurka. Indiar-agenteak bota zion tiro bat burura, baina ez zuen zeharo zulatu. Hartzak atzera jo zuen. Besteek tirokatu zioten baina ez zuten harrapatu. Eta Harrisek:

— Bizirik ote dago?

— Ez dut uste — Johnek —. Animaliatzar hauek ez dira hain erraz menderatzen. Burmuinera sartu behar da bala. Eta ez dugu zauritu baino egin. Haserre egongo da. Ziur aski, bide-bueltan gordeko da. Handik pasatzen garenean erasoko gaitu, eta amildegira botako.

— Eta berak nahi duen arte hemen egon behar al dugu? — Jorjek —. Ni goseak amorratzen nago. Beraz erabakiak hartu behar ziren.

— Nahi al duzue aurpegi ematea — galdegiten du Johnek —. Lau gara eta zerbait lor dezakegu. Berak ez du presarik izango eta gauza da hemen egunetan edukitzeko.

— Noski baietz — Harrisek —. Eta zu, gan- busiarra, prest al zaude?

— Ikusi nire fusila. Prest dago — erantzun zuen honek —. Gainera, tiratzaile ona naiz.

— Ekin ba aurrera!

Eta aurrera ekin zuten. Lehenengo kargadore guztiak buru muinetan sartzeko asmoan. Lortu ezean atzera egingo zuten berriro.

Hartzak nabaritu zuen eraso zetorkiola. Egundoko orroa bota zuen. Eta han azaldu zen atzeko hanketan tinkatuta.

Lau abenturazaleak: pin, pan, tiroka josi zuten.

Hartzak muturraren aurrean hartu zituen tiro andana haiek. Aurreko hanketara makurtu zen. Eta tiratzaileak atzera.

Berehala azaldu zen hartza. Hirugarren deskarga hartu zuen. Ehiztariak atzera jo zuten berriro. Lehen baino atzerago. Leize nagusi aldera. Atzerago ahaztu zitzaien neskatxa indiarra. Eta haruntz zuzendu zen hartza. Laino Gorrik ikusi zuen zer zetorkion neska hari. Eta hartzarengana zuzendu zen fusilarekin. Kulatarekin eman zion ahal zuen ahalegin haundienean. Alferrik.

Hartza ez zen kolpe hartaz ohartu. Atera zuen orduan ganbusiarrak gerriko ahiztoa eta eraso zion hartzari. Jirabuelbaka, berebiziko borobilak eginaz. Noizbehinka hartzaren gorputzean zastaka eginaz.

Une batean indiar-agenteak tiro hotz eta zorrotz bat bota zion hartzari. Hau bere pisuaren kargak behartuta, amildegira erori zen.

XI

Gose ziren lau abenturazaleak, eta Minnehaha zer esanik ez. Meazuloaren hasierara joan ziren ahal bezain azkar. Bizirik ote zeuden oraindik indiarrek?

— Dirudienez, aspertu dira gure zain indiarrek — esan zuen Johnek —. Ez ditut inondik ikusten.

— Beharbada basoan egongo dira gure zain. Azal gorriak, egoskorak dira eta gure ile adatsa desiratuko dute bere ezkutuaren hornigarri — esan zuen Jorjek.

— Lehenengo behintzat — Jorjek — bila dezagun janaria. Badira hogeita lau ordu jan gabe gaudela eta.

— Arrazoia duzue — ganbusiarrak —. Bidean aurkituko dugu zer jana.

Abiatu ziren, bada. Bidean mendi-oilarrak ehizatu zituzten. Eta wakon izena duten beste hegazti batzuk.

Bi ordu behar izan zituzten leize-zulora iristeko. Gosaldu zuten lasai asko eta erre ere bai. Han zeuden zaldiak txintxo asko utzitako lekuan.

Egun guztia lasai pasatu zuten. Iluntzear zegoenean altxa zen John eta fusila hartu zuen. Zerbait entzun baitzuen.

— Txeiene horiek ote dira? — galdegin zioten besteek.

— Ez — indiarrek —. Zaldiak dira.

— Badaiteke gutarrak izatea — indiar- agenteak.

Laino Gorrik, lurraren kontra finkatu zuen bere belarria. Zaldi trostakada hura entzun nahirik:

— Lau baino gehiago dira — esan zuen —, arin doaz eta libre dabilzala dirudi.

— Ondo dago — Johnek —. Zaldi basatiak baldin badira lazoa bota eta harrapatuko ditugu.

Gero zaldien trostakada argi eta garbi entzutzen zen. Han zetozen zaldiak. Aurretik beren lauak, lehen libre utzi baitzituzten haize piska bat har zezaten. Haien atzetik beste lau zaldi

basati. Esaten dutenez zaldi basatiak, gorroto bizia omen dio zaldi otzanduari.

Lau gizonek utzi zituzten berenak pasatzen. Gero, besteak inguratu zirenean bota zizkieten tiroak. Haiek larritu eta atzera jo zuten basoan zehar galdu arte.

Lau zaldi otzanduak nagusiengana hurbildu ziren. Eta esker onez bezala lepoa makurtu zuten.

— Orain abia gintezke — esan zuen indiar- agenteak —, abia gintezke koronelaren desirak betetzera.

Minnehahak zorrotz begiratu zion aitari. Hau beldurtu ere egin baitzen. Bere errua izango zen gizon haiek helburu hori lortzen bazuten.

Gaua lasaia zen eta lau gizonek han geratzea erabaki zuten. Lehenengo goardia ganbusiarrak egingo zuen. Gero txandaka.

Johnek:

— Erne ibili, ze azal gorri horiek ustekabeak ematen bereziak baitira.

— Egin lo lasai — ganbusiarrak.

Hiru gizonek lo hartu zutenean Minnehaha aitarengana hurbildu zen. Haserre. Eta esaten dio:

— Noiz arte egongo gara era honetan? Zer esango luke nire amak azal horizuri hauen kontra ezer ez dugula egin jakingo balu?

— Zer nahi duzu neskatila? Bertan hil ala?

— Nire amak aspaldi egingo zuen — erantzun zion neskak.

— Eta zer uste duzu zuk, zure aita corvi alderdiko indiarra delako bildurtti bat dela, ala?

Minnehahak ez zion erantzun. Aita haserre, ordea. Heldu besotik eta esaten dio:

— Erantzun ezazu! Hori iruditzen al zaizu?

— Ez, baina. . . zu ez zara siux odolekoa, nire ama bezala.

— Ezta zu ere ez zara zeharo siux odolekoa. Zuk ere baduzu zainetan corvi odola —

erantzun zion Laino Gorrik.

— Badakit — neskak —, badakit. Ez iezadazu berriro oroitarazi.

— Ondo nabaritzen dut, bai, zer erakutsi dizun amak. Gure odola mezpresetzen erakutsi dizu. Baina bera, emagaldu bat besterik ez da. Gaizto, barru gabeko bat. Hobe luke etxe zuloko lanetan ariko balitz, senarraren kaltzontziloak garbitzen. Eta ez ibili hor beti armak hartuta alde guztietan gorrotoa zabaltzen.

— Hori beste emakumeen lana da. Ez nire amarena. Nire ama gudari ona da. Zuri ere irabaziko lizuke. Eta zure buruko kalparra laster ipiniko luke bere ezkutuaren hornigarri. Laino Gorrik, lepotik heldu zion alabari, ito nahi balu bezala, eta esan:

— Nire alaba ez bazina, meazulora botako zintuzket. Baina ez naiz zure ama bezain odolzale.

Gero, ordea, damutu egin zen eta esaten dio neskari:

— Ale, nekatuta zaude eta zoaz lotara.

Berehala hartu zuen lo neskak.

Euri garaia zen. Eta hala, gau hartan ere euria gogotik hasi zuen.

Geroxeago, Laino Gorrik urrutiko zaratatxo bat entzun zuen. Zarata hura ez zuen edozeinek entzungo. Indiar odola dutenak soilik dute entzuteko sentsibilitatea:

— Badatoz!, badatoz! — esan zuen—. Nire anaiak dira, nahiz eta corvi odolekoak ez izan. Zer egingo dut, azal horizuriek entregatuko ote ditut? Bai? Ez? Dena dela beraiek salbatu zuten nire alaba, eta neroni ere. . .! Orduan?

Eta Minnehaha esnatu zuen:

— Txeienetribukoak datoz.

— Ez ote dira siux odolekoak izango? — Minnehahak.

— Ez, ez dira — erantzun zion aitak —.

Zure ama urruti dago oraindik.

— Irten gaitezen bada txeienehorien bidera. Eta adierazi diezaiegun nor garen — proposatu zion Minnehahak.

— Ez, ez, ez dugu horrelakorik egingo. Beharbada, ez gaituzte guk nahi bezala hartuko. Jarrai dezagun azal horizuri hauekin. Hauekin batera joango gara koronelaren semeengana. Hori da gure helburua.

Neskatoa ez zen pozik gelditu baina ez zion erantzun.

Laino Gorri beste hiru gizonengana inguratu zen. Lo seko zeuden. Bertan hiltzeko gogoia ere sentitu zuen. Eta egin ere egingo zuen. Baina kolpe batetan hiruak hiltzea ezinezko gauza zen. Gero ere izango dugu denbora zioen bere kolkorako.

Eta esnatu zituen besteak:

— Zuuutik! Zuuutik! Txeieneindiarrek gertu daude.

— Ikusi al dituzu? — galdetu zion Johnek.

— Ikusi ez, baina entzun bai — erantzun zien.

Indiar-agentek, belarria lurraren kontra finkatu zuen.

— Bai — esan zuen — egia da. Eta asko dira gainera. Azkar, mugi gaitezen. Goazen gu zelai zabaletara, horiek mendira baitoaz.

Bizi-bizi abiatu ziren. Laster entzun zen indiarren guda hotsa. Guda hotsa ikkischota deitzen diote.

Berehala entzun ziren tiroak eta abar. Indiarrek gure abenturazaleen atzetik zihoazen noiz harrapatuko.

XII

Troska bizian zihoazen lau iheslariak. Indiarrek antzeman zieten norantz zihoazen.

John ez zen brometan ibili. Disimuloz ibiltzea baino bidezkoagoa iruditu zitzaion aurpegia ematea.

Zaldiak hegaka baino bizkorrago zihoazen. Laister basora iritsi ziren.

Belar altuen gainetik lainoa zegoen, terrala, alegia. Orduan Johnek:

— Salbatu gaituk! Belar horiek eta terral horrek salbatuko gaituzte.

— Baina, txeieneodolekoak al dira? — Harrisek.

— Ia ziurra da hori. Ze beste inork ez baitzekien non ezkutatu ginen gu. Salado lakuraino gure atzetik etorriko dira. Baina joan gintezke lasai; alde handia atera diegu.

— Gure zaldiak nekatuta daude. Asko ibili dira basati horiengandik iheska — erantzun zuen Jorjek —. Etsiko al dute?

— Horixe baietz — Harrisek —. Begira zein arin doazen ia lurrik ikutu gabe. Gero gerokoa!
Eta laurak aurrera eta aurrera. Atzetik gertu samarrea indiar bizkorrenak.

— Hemen ibiltzen da Ezkerra — esan zien Johnek lagunei.

— Jainkoak libra gaitzala. Horrekin topo egiten badugu, edota desburutzen dugu tiro batez, edota berak xehakatzen gaitu — baieztu zuen Jorjek.

— Bizkortu dezagun gure urratsa. Indiarrak haserre...

Hitz hauek bukatzerako indiarrek deskarga bota zuten. Inguruan baitzituzten. Eta xirika eta xirika atzetik. Iraungo ote zuten?

Ez zen erantzun erraza. Zaldiak nekatuko ziren, belarrak traba haundia egiten zuen. Baina, ze demonio, oztopo hauek berak edukiko zituzten indiarrek. Beraz...Bi orduz jarraitu zuten era horretara. Ezin atzean utzi, eta ezin harrapatu.

Bapatean Johnen zaldia lurrean tinkatu zen. Honek estutu zizkion ezproinak. Ez alferrik. Zaldiak minaren minez atzeko hanketan gora egin zuen.

— John! John! — besteek —. Ez zaitez geratu. Ez zaitez geratu.

— Zaldiak ez du aurrera joan nahi — erantzun zien honek —. Zerbait gertatzen da hemen.

Jaitsi zen zelatik, eta aztertu zituen bazterrak. Besteek tiroka urruti eutsi zieten indiarrei. Johnek bere azterketaa bukatu zuen. Berri txarrak. Leku lokaztuak ziren haiek. Leku lokaztu haietan edozein erabat gal daiteke.

— Lokatz hau, lokazti hau ingura dezagun — esan zien Johnek —. Zaldiek asko dakite honetaz eta salbatuko gaituzte.

Txeieneamorratuak atzetik abiatu ziren. Gero, ordea, lokatz ikaragarri hartaz beldurtu ziren, eta geratu ere bai. Haserre bizian, iheslariak harrapatzerik ez zutela pentsatuaz, inguruko belarrei su eman zieten. Haizeak kontraka jotzen zuen eta bidea moztua geldituko zitzairen. Iheslariak txoko batean babestu ziren. Sugarrak itzaltzen hasi bezain laster, laku aldera jarraitu zuten bidea.

Lau ordu pasa zituzten lokaztetan, beldur batean. Lokazti hark noiz irentsiko zituen beldurrez. Gero, ordea, lokatza gutxitu zen, bideak hobetu ziren, eta zelai zabala berriro haien aurrean azaldu zen.

— Adiskideak! — esan zien indiar-agentek —, lakua hor dugu gure aurrean. Ez gaitu ezerk geraraziko!

— Eta Ezkerraren gudariak, zer? — erantzun zion Harrisek.

— Iparralderago dago hura — erantzun zuen Johnek —, Jaltaren agindu bereziren bat hartu ez badu behintzat.

— Ezagutzen al duzue buruzagi hori — galdegin zien ganbusiarrak.

— Nik ez dut sekula ikusi. Eta zuk?

— Bere etxean bizi izan nintzen guda hasi aurretik.

— Orduan, gero zure laguntza beharrezkoa izan dezakegu.

— Behar baldin bada...

— Baietz uste dut.

— Ondo dago — Johnek —. Gero hitz egingo dugu horretaz. Orain saia gaitezen lakura iristen. Aupa mutilak, ahalegintxo bat eta han gara!

Beste bi ordu, neketsuak, eta lakura iritsi ziren. Nekatuta baina pozik.

XIII

Gaua iritsi zen eta goseak barkatzen ez duenez gero, afaltzeko prestatu ziren. Ez zegoen ikaragarrizko aukerarik. Txori batzuek ehizatu zituzten. Ez asko, baina bai gosea isilarazteko nahikoa.

- Etxaldetik urruti al gaude — galdetu zuen ganbusiarrak.
- Zuk uste baino hurbilago. Weber ibaiaren bukaeran dago — esan zion ibaia seinalatuz.
- Araphaoe horiek ez ote dute desegin?
- Ez dut uste — erantzun zion Johnek —. Inork gutxik daki, pinudi eta arboladi horren atzean etxalde eder eta bikaina dagoenik. Bihar han izango gara, eta ikusiko dugu.

Beti bezala guardia egin behar zen eta lehenengo Laino Gorri jarri zen. Ehiztariak txokotan zabaldu ziren, ahal izan zuten bezain egokien.

Laino Gorrik begiztatu zituen bazterrak. Gero Minnehahari deitu zion:

- Orain da garaia banatzeko. Ni Ezkerraren bila joango naiz.
- Baina, ba al dakizu non duen bere kanpamendua? — galdegin zion honek.
- Bai, bai, zure amak esan zidan.
- Eta ni zer. . .? Hemen egongo naiz horizuri horiekin?
- Bai, bai. Etxaldea erasotzen dugunean, zuk atea irekiko dizkiguzu. Eta horrela barrura sartuko gara. Maltzurra zara, badakit, eta ongi egingo dituzu gauzak — esan zion indiarrek. Alabaren aurpegia leundu zuen. Gero zaldiari uhal-zola lotu zion. Armak ondo zeuden.

Gero hiru abenturazale haien zurrunka etengabeak entzuten egon zen. Haien lo seko utzita, hartu zuen zaldia, finkatu zen berarengan eta ipar aldera jo zuen tximista baino azkarrago.

Presaka zen, eta zaldia sekulako trote ikaragarrian zeraman. Ez zuen haren errukirik sentitzen. Ezproinak barruraino sartzen zizkion oraindik ere gehiago korri zezan. Zaldia eroa gisa, aurrera zihoan. Ez zuen behin ere nagusiak hain gaizki tratatu. Ahal zuen guztia ematen ari zen. Baina hura ez zen bidezkoa. Azkeneko indarrak ere eskatzen zizkion nagusiak. Aho sudurretatik bitsa zuri-zuria zerion. Ahotik pafa eta pafa egiten zuen arnasarik hartu ezin balu bezala. Errukia eskatzen zion nagusiari.

Laino Gorrik, ordea, ez zuen zaldiaren errukirik. Eta hala esaten zion:

— Korri, korri zaldi! Ezkerra dagoen lekuraino iritsi behar diagu eta.

Ez zitzaion Laino Gorriari zaldirik gabe gelditzea batere axola. Behar zuen lekura iritsi, hori zen gauza. Zenbat kilometro ez ote zituzten egin. Azkenean zaldiak belaunak makurtu zituen. Alaka triste bat bota zuen.

— Ahalegintxo bat, ahalegintxo bat gehiago! — Laino Gorrik.

Baina zaldia ez zen mugitu.

Zaldia hiltzera zihoan. Ondo ulertu zuen indiarrek. Besterik gabe, altxa zelatik, hartu armak eta oinez abiatu zen aurrera. Ezin zitekeen Ezkerraren kanpamendutik oso urruti egon.

Berrehun pauso eman zituen eta bapatean, belar luzeetatik itzalak azaldu zitzaizkion Laino Gorriari. Hamaika indiar baziren.

— Geldi hor! — egin zuen deihadar ahots sendo batek.

— Laguna naiz! — Laino Gorrik.

— Nora zoaz?

— Ezkerraren bila. Araphaoe tribuko buruzagiaren bila.

— Nork bidaltzen zaitu?

— Jalta gudariak.

— Laino Gorriren emazteak? Corvi indiarren buruzagiak?

— Bai, eta ni naiz Laino Gorri. Ni neu.

— Eta ni Ezkerra. Agur, bada, Jaltaren senarrari! Bazen elkartzeko garaia. Piztu ditzagun suak eta txingarrak.

XIV

Berehala sei zuzi, antortxa, piztu ziren. Lehentxeago leku hain iluna zen hura argitu zen.

Ezkerrak anker sona haundia zuen. Eta Laino Gorri eskua luzatu zion.

— Ez nau, noski, nire anaiak engainatuko, ezta? — esan zion Laino Gorri. Ze hau, dakigunez, mexikar jantziz baitzebilen.

— Egia esan dizut. Jaltak bidaltzen nau. Eta Jalta nire emaztea da. Denek dakite zelai-zabalean Corvi batekin ezkondu zela.

— Bai guk ere. Baina, ez baitzaitut sekula ikusi. Eta bestetik ez baituzu indiar jantzirik. Horregatik egin dut zalantza.

— Jantzi hau beharrezko izan dut azal zuriekin ibiltzeko.

Eta Ezkerrak:

— Zuhurra zara — irrifarrez —. Goazen kanpalekura eta zure etxea izango duzu.

— Bai, zurekin joango naiz, baina ez dut zaldirik.

Berehala zaldi berri bat ekarri zioten. Zaldi beltz eta ile ederreko bat.

— Atzo bertan ehiztari bat hil genuen. Hau bere zaldia zen.

Segituan abiatu ziren. Pinudi batetik pasa ziren. Bi mailo gurutzatu zituzten. Han zegoen Ezkerraren kanpalekua. Ehun denda punta zorrotz zeuden. Eta bertan bostehun bat gudari.

Ez zen herria. Gudari taldea baizik. Han ez zen ez emakumerik ez haurrik ageri.

Iritsi ziren bada. Ezkerra bere dendara iritsi zen. Indiarrek wigwam deitzen dute. Eta hala esan zion Laino Gorri.

— Nere wigwam hau zure etxea duzu. Zurea da. Bertan jan eta lo egin dezakezu. Lasai. Hemen ez dago arriskurik.

Bi buruzagiak larruen gainean eseri ziren. Ezkerrak kalumeta eskaini zion bere ostalariari. Kalumeta zera da: guk hemen bakearen pipa deitzen diogun hori. Txandaka erre zuten. Pipa haren tabakoa oso gogorra zen. Berak morike deitzen zioten.

Hura erreta gero, lagun ziren. Eta hasi zuten elkarrizketa. Ezkerrak ekin zion:

— Zertara dator nire anaia hau? Beharbada txeieneindiarrei jaramonik egin gabe, Salado lakua utzi zuelako.

— Ez, hori ez. Siux indiarrek zu oraindik hemen egotea nahi dute. Piska bat gehiago behintzat, haiek etxalde bat desegitera datozen arte.

— Orain arte, hemen inguruan ziren faktoria guztiak desegin ditut — esan zuen Ezkerrak.

— Jaltak koronelaren etxaldea ere desegitea nahiko luke.

— Eta non du, bada, koronelak, Jaltaren lehenengo senarrak faktoria hori? Waber ibaiaren bukaeran.

— Esan iezaiozu Jaltari egoteko lasai. Desegingo dudala faktoria hori, eta bertako bizilagun guztiak labanez josiko ditudala.

— Ez, denak ez, ordea. Nire emazteak koronelaren semea eta alaba bizirik nahi ditu.

— Ondo dago, ondo dago. Bi horiek bizirik emango dizkiot. Baina beste guztiak ahiztoz eta armaz hilko ditut.

— Beste mesede bat ere eskatu nahi nizuke. Hiru ehiztarien eskutan utzi dut nire alaba. Hiru ehiztari horiek koronelak bidali ditu bere seme alabak salbatzera. Ez daude hain urruti ere. Kilometro batzutara. Eta haiei kontuak eskatzea ere ez litzateke gauza txarra izango.

— Ez al dira oraindik etxaldera iritsi? — galdetu zion Ezkerrak.

— Ez.

— Ondo, bada, zu gidari bazaitugu, goizerako han izango gara. Gureak izango dira. Baina orain jan ezazu.

Ezkerrak jakirik gozoenak eskaini zizkion eta esan:

— Jan lasai. Ni gudariengana noa. Prestatzera.

Gogoz jan zuen Laino Gorrik. Ez ziren alferrik izan beste egunetako barau luze haiek. Oraindik ere jaten ari zen. Kanpalekuak halako nahaste borrhaste arraro bat nabaritu zuen.

Kanpamendu guztia aztoratu egin zela zirudien.

Zaldi soinu haundia nabaritzen zen. Eta berehala tiro hotsak.

Laino Gorri bildurdu egin zen. Nor ote zen? Agian Ipar Ameriketako Gobernuak bidaltzen zituen boluntario haietakoak? Bere etsairik handienetakoak?

Berehala dendako kortina zabaldu zen. Ezkerra zen eta zera esan zion:

- Jalta etorri da berrehun gudariek.
- Nire emaztea! — esan zuen Laino Gorrik haserre.
- Zergatik haserretzen zara — araphaoe indiarren buruzagiak.
- Haserretu ez, baina oraindik ez zela iritsiko uste nuen. Beno, beno, goazen agurtzera. Han zetorren Jalta. Emakume bildurgarri hura. Bere leinuko buruzagi guztiak menderatu zituen emakumea. Zaldi gainean zetorren. Harro, harro. Indiarrek Ahu, ahu. .. egiten zioten.

Ezkerrak, leinu guztiaren izenean agurtu zuen.

Sartu zen Jalta, eta Laino Gorri ikustean ez zuen ezer esan.

Honek ere ez zion hitzik zuzendu. Pipa lasai erretzen jarraitu zuen. Baina Jalta haserre zegoen. Begiratu besterik ez zegoen haren begietara. Eta azkenean:

- Non daude?
- Azal hori zuriaren semeak—erantzun zion lehorki.
- Zure lehenengo senarraren seme-alaba?
- Esan nizun Ezkerrarengana etortzeko koronelaren seme alaba harrapa ahal izateko. Gautxori zaintzeko eta Minnehaha ere bai. Badakit Gautxori hil zela, baina zu pasa egin zinen. Zorte ona izan zenuen.
- Arrazoia duzu — esan zion Laino Gorrik —. Batzuetan, corvi odolekoak siux odolekoak baino bizkorragoak gara.
- Eta non daude koronelaren seme-alaba?

- Ez dakit. Eginkizun hori betetzeko denbora behar da. Entzuten duzu? Denbora.
- Baina, ez al dituzu ikusi ere egin, ala?
- Ez — erantzun zion Laino Gorrik lehorki.
- Baina, zer egin duzu etxetik irten zinenetik? Aspaldi baita Gautxori eta Minnehaharekin irten zinela.
- Ibili eta ibili, troteka hemendik eta troteka handik. Hori egin dut. Txeieneindiarrek alde guztietatik ditudala. Arriskuez inguratua. Hori egin dut. Gutxi iruditzen al zaizu? Gaur gauean iritsi naiz honantza. Nire zaldiaren gainean. Eta hainbeste behartu dut zaldia, zeren lehertuta utzi baitut bidean.
- Eta etxaldea oraindik ere zutik al dago? |Baina; zer egin du Ezkerrak? — galdetu zuen haserre.
- Zer, zer, zer egin dudan. Manitu handiak libra zaitzala. Ile adatsak moztu, etxaldeak desegin, eta zer egin dudan esaten duzu? Ez zuten siux odolekoek gehiago egingo, ez.
- Engainatuta zaude — esaten dio —, siux odolekoak beti lehenengo dira. Gehiago egiten beti. Gero altxa zuen mantua eta bota gaineko ile adatsa azaldu zion.
- Ba al dakizu norena den?
- Azal horizuri batena, zalantzarik gabe — erantzun zion.—Nire lehenengo senarrarena. Koronelarena.

Laino Gorri zurbil geratu zen. Isilik. Eta besteak:

- Eta ez al didazu, beraz, ezer galdetzen? Bizi denik ere ez?
- Ekar itzazu ondoko larruzko bi basoak. Edan dezagun Ezkerrak eskaini digun pattarra — esan zion besteak.
- Nori agintzen diozu hori?
- Zuri.
- Emakume bati?

— Ez al zara nire mendeko? Ez al zara gogoratzen nire emazte zarela?

Hori zioen bitartean Laino Gorri haserre jarri zen. Ahiztoaren muturra eskuarekin ikutu zuen. Eta Jalta geldi-geldirik. Bazekien Laino Gorrik ez zuela alferrik meatxatzen. Hartu zituen basoak, eta pattarrez bete zituen. Eta haserre eskaini zion, zera esanaz:

— Har beza nire sakem jauna. Nire nagusiak.

Jaltak ez zuen pattarrik edan. Bere pazientzia apurtxoak galzorian zeukan. Halako batean Laino Gorrik galdetzen dio:

— Nork kendu dio koronelari ile adatsa?

— Nik — erantzun zuen besteak harro.

— Ondo egin duzu. Baina hil al duzu? Gizon bat ibil daiteke ile adatsik gabe. Nere tribuan sarritan ikusi dut horrelakorik. Zigor horrek oinaze handia ematen du, burukomin latzak, berdin samar bizi ohi dira.

— Orduan, koronelak ere izango du hamaika burukomin.

— Beraz, ez duzu hil, ezta?

— Jaltak ez du aski bere heriotzarekin.

— Berak zu abandonatu zintuelako egiten duzu ezta?

— Horregatik, eta Gautxori hil zigutelako.

— Non harrapatu zenuen?

— Iletaren Ibilbidean. Nere gudariak borrokarako deitu nituen. Denak hil zituzten.

— Eta non dago gatibu hori? Siux arteko kanpalekuan?

— Ez, ez dago han. Leku hobean dago. Nire gudariak zaintzen dute. Han egongo da nik nahi arte.

— Ile adatsa kendu diozunez gero, hobe zenuke askatzea.

— Zuk ez dakizu zer den mendekua ala? Ikusiko duzu koronelaren semeaeta alaba eskuetan ditudanean! Orduan ikusiko duzu nire mendekua zenbaterainokoa den!

— Ez al dituzu torturatuko behintzat!

— Oraindik ez dut erabaki zer egin. Nik nire bi semeak galdu ditut. Gautxori tiroka. Eta Minnehaha ez dakit non. Ziur aski, han bertan. Baina ez nago ziur.

— Ez andrea, ez, ez duzu galdu Minnehaha. salbatu nion bizia. Orain ondo dago.

— Eta non dago? — galdetu zuen Jaltak alaitasunik gabe.

— Koronelaren semeak salbatzera doazenekin utzi dut. Ez zaitez hartaz kezka. Zu bezain maltzurra eta gaiztoa da eta.

— Ez al dute hilko?

— Azal hori zurikoek ez dute hain erraz aurrik hiltzen.

— Badakit alde egingo duela hara iristen denean—esan zuen Jaltak —. Badakit nola zauritu zuen koronela. Horregatik pozik gaude odolekoak. Orain saia gaitezen gu bera salbatzen. Aukera ditzagun berrehun gudari onenak: siux eta araphaoe bietatik. Nahikoak ditugu berrehun etxaldea desegiteko. Eta orain utz nazazu bakean.

Laino Gorri atera zen handik. Biraoka, ez baitzuen sekula hain andre gaizto eta harrorik ezagutu.

John, Harris eta Jorje. Non ote daude gure hiru gizonak? Oraindik ere lozorroan, belar tartean.

Ganbusiarra ez zen behin ere oso irekia, baina, hala ere, bazuten harengan konfiantza pixka bat. Bazekiten ausarta zela.

Pasa ziren zenbait ordu ihes egin zuenetik. Halako batean oihu min batek esnatu zuen indiar agentea.

— Neska koskor hori dela dirudi — esan zuen altxatuaz.

Eman zituen pauso batzuek. Iluntasuna latza zen. Ez zen askorik ikusten. Berehala beste oihu gogor eta trinko bat entzun zuen. Minnehaha zen. Zertan ari ote zen? Zaldiak askatu eta izutzen. Zaldiak lauhazka bizian galdu ziren urruti.

- Zer gertatzen da — galdetu zuen zaldia iheska ikustean.
- Indiarrek izango dira noski — Jorjek.
- Ezin daiteke. Ez zuten gure zaldiek ihes egingo.
- Eta non dago ganbusiarra? Ez dago ganbusiarra! Beharbada indiarrek hil dute—esan zuen Jorjek.
- Ez, ez, ez dira indiarrek gure zaldia iheska jarri dituztenak. Zuk ikusi al duzu ezer, neska?
- Nik . . . bada . . . ez nago oso ziur, baina kanpaleku hau animalia beldurgarri inguratuta dagoela iruditzen zait.
- Ez al dago gizonik?
- Ez, ez — erantzun zuen neskatoak.
- Badakit zer gertatzen den — esan zuen orduan Johnek —. Igo gaitezen zuhaitz batera. Pekari izeneko animali basatiak dira. Ez nolana tirokatu. Zaurituz gero askoz arriskutsuagoak bihurtzen dira. Orduan galduak ginateke.
- Pekariak dira, pekariak dira — oihu egin zuten ehiztariek beldurraren beldurrez.

Denek ihesari eman zioten. Inguruan zegoen mendi-mailo batera. Pekariak ere korrika abiatu ziren. Baina ez zirudien oso haserre zeudenik. Pekariak oso arriskutsuak omen dira, baina haserretzen edo gosetzen direnean. Bestela ez.

Zedro eder bat begiztatu zuten. Denak igo ziren. Johnek heldu zion neskatoari besotik eta gora aupatu zuen. Une horreetan, ordea, fusilak aldegin eta tiroa atera zitzaion. Tiro hark pekari bat zauritu zuen. Ikaragarria izan zen hura. Pekari guztiak zuhaitza jan beharrean hasi ziren, su eta gar.

- Hau duk izatekoa! — esan zuen gidariak —. Okerragorik ezin zitekeen gertatu. Igo gaitezen gorago, ze bestela xehetuko gaituzte eta.

Pekari guztiak gainean zituzten, haserre bizian.

- Hau besterik ez genuen behar gure bidaia bukatzeko — esan zuen Harrisek.

— Eta non ote da ganbusiarra? — galdegin zuen Jorjek.

— Tiro eta zarata hauekin esnatuko zen, inguruan bazen.

Gainera nik ez dut bere zaldia gureekin ikusi — esan zuen Johnek.

— Beharbada pekari madarikatuak ikusi eta ihesari eman dio — esan zuen Jorjek.

— Gu esnatu gabe?

— Beno, beno, utzi dezagun ganbusiarra alde batera. Eta salba dezagun gure larrua — esan zuen Harrisek.

Goi samarrera igo ziren denak.

— Hemendik ondo ikusten dira pekari madarikatuak — Harrisek.

— Beharbada, egunsentirako aspertu eta joango dira — Jorjek.

— Ez dut uste. Behin hiru egun egon nintzen zuhaitz gainean pekari madarikatuak alde egiten ez zutelako.

— Eta zer jango dugu hemen? — Jorjek —. Zuhaitz honek ez du fruturik.

— Egon lasai. Ez pentsatu hori. Zerbait lortuko dugu eta.

Bitartean pekari madarikatuak lurtean zain, piñak jaten. Alu zerriak.

Minnehaha goi goiraino igo zen. Bazirudien zerbait ikusi zuela. Barru barrutik oihu batek aldegin zion:

— Zer duzu neska? — galdetu zion indiar agenteak.

— Ez, ez, ezer ez — erantzun zion neskatoak poza disimulatu ezinik.

— Ikus dezadan zer begiztatu duen neska alu honek — esan zuen Jorjek.

Ehiztariak begiratu zuen. Eta azal gorri pilo zetorrela konturatu zen. Lakuaren izpazterretik. Haien buru zetorrenak Minnehaha beraren antzeko jantzia zeraman. Eta bere ondoan norbait, jantzi ezberdinekin.

Urruti zeudenez gero, ez zuen inor ezagutu. Ezta indiarra ere. Indiar hura Laino Gorri zen. ondokoa Jalta, eta hurrengoa Galdara Beltza.

— Zatoz hona — esan zion Minnehahari —. nere fusilaren berri erakutsiko dizut. Neska, ordea, gorago igo zen. Gorago eta gorago. Arina baitzen, adarrek erraz eusten zioten. Ez, ordea, Jorjeri.

— Suge gaiztoa! Zure adiskideei seinaleak egin nahi dizkiezu. Hori egiten baduzu dozena bat bala botako dizkizut — esan zion haserre.

Neska beldurtu zen eta jaitsi ere bai. John eta Harris behean zeuden zain.

— Indiarrek dira — baieztu zuen Jorjek.

— Jaltaren gudariak, beharbada? — Johnek.

— Ez dakit. Urruti daude eta ez ditut ondo ezagutu.

— Eta zuk Minnehaha, ezagutu al dituzu?

— Lumak daramatzate buruan. Hori ikusi dut. Besterik ez. Dakizunez siux odolekoek ez daramate lumarik buruan.

— Berrehun edo gehiago dira — esan zuen Jorjek —. Galdara Beltzaren gidaritzapean baldin badatoz, inork ez gaitu oinazetatik libratuko, ez da John?

— Beno, gizonak, oraindik behintzat ez gara bere hatzaparretan erori. Egon gaitezen lasai. Honantz badatoz, pekari madarikatuok oso egokiak izango ditugu.

— Ez dizut ulertzen — esan zion Harrisek.

— Animaliak ez dute pertsona bat eta bestea bereizten. Indiarrek inguratzen badira, bere laguna haiek hil dutela pentsatuko dute eta aurka joango zaizkie. Guk une hori aprobeitza dezakegu ihes egiteko.

— Eta zaldirik gabe?

— Oraingoz bai. Orain tapatu iezaiozue Minnehahari ahoa. Oihuka has ez dadin. Eta itxoin dezagun.

XV

Zuhaitza adartsua eta hostotsua zen. Gordetzeko aproposa. Inguratu zenean indiar taldea, ikusi ahal izan zuten. Haien buru Laino Gorri.

- Alu alu, ez beste alua — oihu egin zuen Johnek —. Saldu gaitu idi txar bat bezala.
 - Ez nuen uste azal gorri horien artean ikusterik — Jorjek.
 - Beharbada, gure ile adatsak Galdara Beltzari agindu dizkio — esan zuen Harrisek.
 - Ez dut uste. Galdara Beltza ez da inortaz fidatzen. Ezta agintzen diona beste indiar bat izanda ere.
 - Beraz, indiar bat izanik ganbusiarra zela eta gure artean egon da madarikatu hori! — galdegin zuen Harrisek.
 - Zalantzarik gabe — Johnek —. Okerrena zera da, beranduegi konturatu garela. Bestela bere gorpua arranoen janari izango zen aspaldi.
 - Eta bere atzetik datorrena, nor da? Jalta, agian?
 - Bai, Harris, Jalta da! Hori Galdara Beltza baino okerragoa da oraindik.
 - Beraz, azkenean lortu dute siux, araphaoe eta txeienedenak batera elkartzea, ezta? Orain Jainkoak daki zer gertatu behar duen!
 - Eta zer egiten du bitartean gobernuak — galdegiten du Jorjek.
 - Egon lasai, egon lasai — erantzun zion Johnek —. Azal gorrien hilketak ez dira zigorrik gabe geldituko. Kalifonian boluntario asko biltzen ari omen da zigortzera etortzeko eta. Pekari haserretuek ere entzun zituzten indiarren ahots zaratak. Prest jarri ziren edonor ikusten zutelarik haren kontra erasotzeko.
- Belarra hain luzea baitzen, indiarrek ez ziren animalia hauetaz konturatu. Lasai zetozen. Azal zurikoek nondik ihes egin ote zuten eta abar.
- Bogeita hamarren bat indiar inguratu ziren zedroaren ingurura. Ze bide hartan zenbait landare hautsita eta zapalduta baitzegoen. Pekari haserretuek ikusi zituzten eta baita gogor eraso ere.

Atzetik zetozen indiarrek konturatu ziren arriskuaz eta han hasi ziren oihuka:

— Pekariak dira, pekariak dira!

Zenbait tiro hots zabaldu zen. Eta pekari gehiagoa hilda geratu zen. Baina hainbeste baitziren, ze talde osoa haserretzea eta eraso gogorragoa izatea besterik ez baitzuten lortu. Zaldiak ere larri ziren, pekari horien hatzamaradak hanketan nabaituaz. Urrutiratu ziren indiarrek.

Orduan Johnek:

— Adiskideak! Orain da garaia. Ihes egin dezagun. Etxalde hori ez dago oso urruti, eta araphaoe eta siux horiek baino lehenago iritsiko gara.

— Hemen utziko al dugu neskatila hau?— galdegin zuen Harrisek.

— Ez, gurekin eramango dugu. Eta erne ihes egin ez dezan.

Jaitsi eta korrika abiatu ziren Weber ibai ertzera ahalik eta lasterren iristeko. Ordu erdi batean iritsi ziren Weber ibairaino.

Begiratu zuen Johnek ingurura. Ez zen arriskurik ikusten. Beharbada, beti ezkutuan egoten diren pumak.

— Ezin dut burutik kendu ganbusiar madarikatu hori — zioen Johnek —. Horrek egin digu guri. Traidore batekin ibili gara.

— Horregatik etorri zen hain pozik gurekin

— Harrisek —. Baina, egon lasai, horrek ere hartuko du berea eta. Zerbait jan zuten. Bat batean, ordea, zarata entzun zuten. Ez nolanhikoa. Indiarrek ziren. Beraz, ibai zabal hura pasa beharrean zeuden. Ez zen erraza izango. Eta munizioa hondatu egingo zen gainera.

Halako batean Jorjek errekan aurrera zihoan ideki bat ikusi zuen:

— Azkar lagunak. Hortik. Denak kabituko gara noski.

Hiru lagunak eta neskatoa urak egindako zulo eta leize batetik sartu ziren.

— Hauxe leku polita — esan zuen Johnek — Indiarrek bilatzen badute ere, banaka

banaka beharko dute. Eta orduan erraz hilko genituzke.

— Indiarrak gizon zuria usainez ere ezagutzen omen du. Hala diote behintzat.

— Bai, bai, badakit. Baina egon gaitezen isilik, inguruan daude eta.

Une batean ez zen deusik entzun.

John zelatara atera zen. Indiarrak erreka gurutzatzen ari ziren, beste alderdian begiratzeko edo... Zaldi gainetan.

— Sei besterik ez dira eta! — esaten du gero.

Baina azal gorri batek gure ibiltarien zantzua hartu zuen.

Eta Johnek:

— Egon prestu. Su-armarik ez dakarte. Ez bota nik agindu arte.

Une hartan leize-zuloko argia galdu zen. Norbait zegoen sarreran. Gero barrura sartu zen.

Harrisen fusiletik tiro lehor bat joan zen indiarraren gorputzera.

— Kanpora, kanpora! — oihu egin zuen Johnek —, ez dago beste erremediorik. Borroka egin beharra dago.

Kanpora atera eta beste bi indiar hil zituzten. Hiru gelditzen ziren. Borrokarako prest. Baina azal hori-zuriak ere hiru zirela ikustean, hartu zaldiak eta ihesi biziari ekin zioten. Ibai bueltan galdu ziren.

— Ihes egin dezagun guk ere! Laster ehundaka indiar izango ditugu eta gure atzetik — esan zuen Johnek.

Artasoro batera iritsi ziren. Indiar gehiago ikusi zituzten han, erdi bilutsik. Ihes egin zuten beldurrez.

— Lagunak gara, lagunak gara! — esaten zien Johnek.

Algara ikaragarria ateratzen zuten. Eta Johnek:

— Egin dezatela algara. Horrela barrukoek entzungo diete, eta intendenteak, arduradunak ezagutuko nau.

Indiarrak aurretik, besteak atzetik, bide buelta batean, etxe-bizitza eder bat. Hain zuzen hura

zen koronelaren etxea.

Sartu ziren barrura. Zubi altxakorra gurutzatu zuten eta. ..

— Lagunak gara, lagunak gara! — esanaz.

Sarreran bertan, gizon bat zegoen ate zain. Mexikar indartsu bat, eta haren ondoan beste beltz batzuk. Bi pistola bularrean jarri zizkioten.

Eta orduan Johnek:

— Morales, ez al nauzu ezagutzen?

Mexikarrak begiratu zion eta esan:

— Nagusiaren laguna da. Indiar agentea da.

Eta barnera oihu egin zuen:

— Jorje, Mary! Aitaren lagunak ditugu hemen. Etorri azkar.

Laster azaldu ziren Jorje eta Mary, koronelaren semea eta alaba. Mutila beltzarana eta altua. Hamabost urtekoa. Neska gazteagoa, ilegorria, anaia bezain ederra.

Eta biek oihu egin zuten:

— John, John!

Orduan, indiar agenteak txapela kendu eta esan zien:

.

— Ez dago denbora galtzerik. Altxarazi ezazue zubia eta bildu zerbitzari guztiak.

— Zer ba...? — gazteak.

— Indiarrak atzetik ditugulako.

— Ziur al zaudete?

— Txiripaz ihes egin dugu guk. Ez dago zalantza izpirik. Hemen ditugu laister. Mutila beldurtu zen. Maryk ordea:

— Etor daitezela — esan zuen —. Gu aitaren umeak gara eta ausartak. Gure aitaren etxea defendituko dugu.

— Non dago gure aita? — neskak.

— Laramien — erantzun zion Johnek lasai.

— Borrokalari ona da — erantzun zuen semeak.

Johnek arduradunari deitu zion. Eta etxeko ate, leiho eta abar ixteko agindu zion. Egon gelara joan, eta esan zien Johnek:

— Zuen aitak bidali nau. Hain zuzen siux tribuak zuen etxalde hau ezabatu nahi du, suntsitu nahi du, eta zuek bizirik harrapatu nahi zaituzte.

— Eta nola dakite indiarrek gu hemen bizi garela? — neskak.

— Gure aita lehendabizi emakume indiar batekin ezkondu zen. Beharbada sorgin hark badaki non dagoen gure etxea — erantzun zuen mutilak.

— Zenbat gizon dituzue? — Johnek.

— Hogei beltzak eta erdi beltzak. Denak jatorrak eta zintzoak.

— Ondo dago — Johnek —. Zuek hogei eta gu hiru. Hauek Harris eta Jorje dira, zelai zabaleetako ehiztari zintzoak. Zuen aitaren lagun-lagunak.

— Eta belarretan dagoen ganadua zer? — gazteak.

— Ba hor utzi behar. Ez dago beste biderik.

Bitartean indiar etsaien tiro eta arma hotsa entzuten hasi zen. Eta Johnek:

— Denek hartu armak, hartu armak!

XVI

Ez zuten uste indiarrek hain azkar etorriko zirenik. Presaka atera ziren handik eta gudarako prestatu.

Ate, leiho eta abar, denak itxita zeuden. Barruko jendea ondo armatua, fusila, pistola eta aizkorarekin. Ez zen txantxetako gauza Galdara Beltzaren eskutan erortzea.

— Egunez ez dute erasoko — Johnek —. Badakite gu hemendik ezin garela irten eta. Ganadua desegingo dute beharbada...

— Ez zaio axolarik — gazteek —. Mila bururengatik...

— Zuen aitak badu nahiko diru beste mila gehiago erosteko.

— Behar bada bai — mutilak —. Baina banekien galduko genituela. Eraman edo hil ditzatela. Egin dezatela nahi dutena.

— Horrekin ez dute aski izango — Johnek—. Haiek gure ile adatsak nahi dituzte, bere ezkutua dotoretzeko.

— Bada, kostako zaie — erantzun zuen gazteak.

— Ez duzue siux horien gorrotoa ongi ezagutzen. Ez dute bakerik emango etxalde guztia erre, eta zuek harrapatu arte.

— Hainbesteko gorrotoa al digute?

— Zuek Devandel koronelaren seme-alabak zarete. Eta zuen aita, azal gorrien etsairik handiena da. Beste arrazoiak ere badaude.

— Asko al datoz?

— Bi tribu elkartu dira. Berrehun bai. Zaila izango zaigu irabaztea. Gu hogeita hiru bakarrik eta...

— Zer egin dezakegu? — gazteak.

John isilik gelditu zen. Kanpoan algodoi soro bat zegoen. Han gizon batzuk algodoi hazitatik olio ateratzen ari ziren.

- Zertan ari dira horiek? — galdetu zion Johnek
- Olio ateratzen, gero estufak berotzeko.
- Eta olio asko al daukazue biltegietan? Johnek.
- Nahikoa. Kupel asko dauzkagu.
- Bota ezazue olio hori galdara haunditara.

Eta gazteak harrituta:

- Eta zer egingo duzue galdara eta olioarekin?
- Olio irakingo dugu, eta gero indiarren bizkarretara botako dugu. Ongi larrutuko dira. Ikusiko duzu.

Harris eta Jorje etxeko neskarekin kontu-kontari ari ziren. Eta galdetzen die:

- Non dago Minnehaha?
- Ez dakigu — haiek.

Etxe guztian ibili ziren bere bila. Alferrik, ordea. Ez zuten aurkitu.

Laster etxe barruko patioan su pila bat piztu zuten eta galdara haundiak jarri zituzten olioak irakin zezan. Usai txar-txarra botatzen zuten.

Besteak babesean zeuden gudarako prest.

Egunez ez zen ezer gertatu. Eguzkia ezkututzen hasi zenean, ordea, etxe inguru guztia indiar zaldunez josi zen. Barrukoak beldur ziren.

- Zakurraren putza! — esan zuen Johnek —. Bostehun eta gehiago badira.
- Jalta ere hor dator bere siux gudariek — Harrisek.
- Eta Araphaoeak, Galdara Beltza aurretik dutela, eta Ezkerra ere bai!
- Erraz hilko gaituzte! Ez dugu salbabiderik. Nire buruak baino pena gehiago ematen dit arrebarenak.

— Beno, mutil — esan zion Johnek —, oraindik behintzat bizi gara. Lasai egon. Askok dira, baina ez dute lan erraza izango. Etxe honetako hormak oso altuak dira, inguruko fosoa, zanga sakona, eta etxeak gaztelu bat dirudi.

— Bai — gazteak — baina egurrezkoa da su ematen badiote denak kiskaliko gara.

— Ez zaie hori indiarrei komeni — erantzun zion Johnek —. Zuek bizirik nahi zaituztete, hori garbi dago.

— Eta zergatik nahi gaituzte bizirik? — galdegin zuen gazteak.

— Nik zer dakit ba. Beharbada bahitu gisa edukitzeko edo...

— Eta ez al dira gu laguntzera etorriko?

— Ez da erraza. Horrek denbora eskatzen du.

— Jo.. . John, orduan galdu gara.

— Beno — Johnek — nik egia esaten dizut. Defentsa bakarra gure tiroak izango ditugu. Zer ari dira indiarrek beren gudariak taldekatzen?

Hain zuzen, bi talde besteengandik aldendu ziren. Bat ibai ertz aldera, bestea algodoi soro aldera. Besteek etxea inguratu zuten bi ilaratan jarrita.

Han ikus zitezkeen Jalta, Laino Gorri eta beste bi buruzagi. Beharbada Galdara Beltza bata eta Ezkerra bestea.

Hauek etxeari itzuli osoa eman zioten dena ikusiaz. Gero lehengo lekura itzuli ziren. Urruti samarretik ordea.

Iritsi zen gaua. Barrua sugarrez argitua azaltzen zen. Galdaretan olioak pil-pil egiten zuen. Noizbehinka tximistaren bat azaltzen zen urrutian.

— Gau txarra izango dugu — esan zuen Johnek —. Ekaitza eta hor kanpotik azal gorriak. Indiarrek tiroka hasi ziren. Barrutik ez zuten erantzuten. Munizioak ez ziren alferrik galdu behar.

— Kontserba ditzagun munizioak, alferrik galdu gabe!

Ordu erdi inguruan aritu izan ziren indiarrek. Baina etxe haren eta inguruko egurrezia, sendoa

zen, eta balek ezin zuten hura zulatu.

Azkenean, indiarrek eraso nagusia ematea erabaki zuten.

Hasi ziren, bada, egurresira inguratzen. Borobilean, zirkuloan, poliki-poliki inguratuz.

Etxearen defendatzaileak ere hasi ziren tiroka, atzera joko zuten esperantzarekin.

Guda bizian ziren.

— Utziko al diegu gehiago inguratzen? —galdetu zion Harrisek Johni —. Hiru hil ditugu.

— Bai, bai, arrazoa duzu. Ikus dezagun olio berotu den ala ez. Indiarren bizkarrak esango digu hori.

— Ikusi al duzu Jalta? — esaten du Harrisek-; ez dakit non ari den borrokan.

— Ezkerra eta Galdara Beltzaren tartean dago. Bota dizkiot bizpahiru tiro. Baina ez dut zauritu.

— Aginduko al dut sua geratzeko?

— Bai, agindu ezazu. Munizioak falta zaizkigula usteko dute eta asaltora etorriko dira, erasora alegia.

Berehala geratu zen sua, tiro soinua. Isilunea zabaldu zen. Indiarrek munizioak falta zitzaizkiela pentsatu zuten. Eta egurresira inguratu ziren, nohizbehinka tiro urduriak boteaz. Apuntatu gabe.

Irabazi zutela pentsatzen zuten. Berehala berrogeita hamarren bat gudari jaitsi ziren zaldietatik. Eta egurresira abiatu ziren. Eskutan zeramaten bere arma berezia, hain trebeki erabiltzen duten tomahawk delakoa. Gehiegi pentsatu gabe, hain baitzeuden irabazi zutelakoaren ustetan, fosora jaitsi ziren. Fosoa, sakona zen eta nolabait jaitsi behar zuten. Hura pasaz gero, beste alderdira igaroko ziren.

Une garrantzitsua barruan zeudenentzat. Barruko zerbitzariak ez zeuden lotan. Inguratu zituzten galdara irakinak.

Kanpoko indiar haiek fosoa zeuden. Haiei begira beste azal gorriak. Une hartan John, Harris eta Jorje, koronelaren semeak eta alabak tiroka ekin zuten. Inguruan zeuden hamaika eta hamaika indiar hil zituzten. Geroxeago, galdara irakinak hartu zituzten, olioarekin. Eta fosoa zeuden indiarren aurka bota zituzten.

Fosotik atera ziren oihu mingarri eta latzak ez ziren nolanhikoak.

Olio irakinak zeharo erre zituen indiarren gorputzak. Hauek elkarren aurka botatzen zituzten euren buruak. Berharbada, era horretan mina arinduko zitzaielakoan. Beren bizkarrak haragi bizitan zeuden.

Ikuskizun tristea huraxe. Fosotik ezin atera olio irakinak itsutu egin baitzituen. Haien lagunek, hura ikusita, ihesari eman zioten.

Beraz, barrukoek irabazi zuten oraingoan.

Bazekien Johnek indiarrek laster itzuliko zirela baina...

XVII

Oraingoaz, beraz, indiarrek garaituta atzera jo zuten. Jalta, Ezkerra eta Galdara Beltza ziren azkenak erretiratu zirenak.

- Itzuliko ote dira berriz halako jipoia hartu eta gero? — galdetu zuen Maryk.
- Bai horixe — Harrisek.
- Ba, lehengoa bezalako jipoia har dezakete berriro — esan zuen Devandelek, koronelaren semeak.
- Devandel jauna — esan zion Johnek —, bostehun dira eta prest daude edozer gauzatarako.
- Horrez gainera — erantsi zuen Harrisek — Jalta dute gidari. Ezkerra eta Galdara Beltza ere bai. Gehiegitxo, txantxetan aritzeko.
- Olio asko al dago orandik? — Johnek.
- Bost edo sei kupel.
- Besterik ez?
- Ez dakit zenbat geldituko den sotoan. Baina ez askorik. . .
- Begiratu ongi. Ahal dugun gehiena edukitzea komeni zaigu.
- Bospaseirekin bi egun baino gehiago ez dugu eutsiko. Gero ordea. . .
- Etorriko al da inor gu laguntzera? — galdetu zuen urduri gazteak.
- Nork daki!
- Ia ezinezkoa da hori — erantzun zion Jorjek triste.
- Ez kezkatu — erantzun zien indiar agenteak —. Badakit Chivington koronela etortzekoa zela alderdi hauetara.
- Dagoeneko inguruan ote dira? — Harrisek.

- Lanean bai, beharbada, baina inguruan ez dut uste. Arkansasen edo.. .
 - Hori urruti dago! — esan zuen gazteak triste.
 - Horixe urruti dagoela. Baina ez dezagun itxaropena gal. Beharbada Chivington koronela guk uste baino hurbilago dago.
 - Ez da atsegina izango azal gorri horien atzaparretan hiltzea — Jorjek.
 - Horrelakoak ez dio inori graziaz egiten. Baina oraindik ez gara galdu.
 - Itxaropena Jaungoikoarengan eta gure punterian, hori da eduki behar duguna. Urduriena Koronelaren semea zegoen:
 - Ezagutu al duzu mantu zuriko emakume hori? Denen buruzagia bezala zetorren hori? Johnek ez zion erantzun.
 - Siux indiarren buruzagi zergatik etorri da emakume bat? Erantzun mesedez John.
 - Ez dakit. Nik ez ditut indiarren ohiturak hain sakonki ezagutzen.
 - Izan ere, badut barruan harra — jarraitu zuen gazteak.
 - Ze harra duzu ba?
 - Emakume horrek nere aita ezagutzen zuela iruditzen zait.
 - Nik ez dakit hori.
 - Baina zuk badakizu nere aita indiar batekin ezkondu zela, ezta?
 - Zerbait entzun dut bai — Johnek.
 - Siux odolekoa al zen? — gazteak.
 - Ez baitakit — Johnek.
- Johnek ez zuen honetaz hitz egin nahi.
- Ziur nago nire aitaren emazte izandakoa emakume hori bera dela. Mendeku hartu nahiko du, zalantzarik gabe.

— Oraindik bizi gara behintzat eta — erantzun zion Johnek.

— Nire aita hemen balego, gauzak errazagoak izango lirateke — erantzun zion gazteak.

Gau txarra zen hura. Ekaitza gogorra. Badaezpada ere, fusilak busti gabe gorde behar ziren. Bitartean azal gorriak inguruko pinudi batean zeuden, itzultzeko prest.

Zain egon ziren etxe barruan besteak. Gau txarra izanik, ez ziren indiarrek erasotzera ausartzen. Itxaropen txiki bat ere sortu zen. Indiarrek ez baitziren ausartzen, ikusten zenez.

— Indiarrek beldurtu egin ditugu — esan zuen Maryk —. Ez dira gure kontra ausartzen.

— Ez dut uste horregatik denik — erantzun zion Johnek. Egon eguraldia hobetu arte. Ikusiko duzu goizaldean.

Esan bezala, eguraldia hobetu zen, eta goizaldean atzera han zetozen indiarrek, bi ilaratan, eskuetan pinu adarrak zituztela.

Barrukoak kezkatu ziren. Bazekiten zertarako zituzten adar haiek. Fosa pasatzeko, alegia. Johnek galdetu zion koronelaren semeari:

— Zenbat zaldi dituzue ikuiluan?

— Hogeita hamar.

— Indartsuak al dira?

— Bai. Bidaldi luzeak egiten ohituta daude.

— Eta ba al duzue sokarik?

— Bai, bai, behar aina eta gehiago ere.

— Eta aizkora eta zerrak ere bai?

— Baita ere. Baina ez dut ulertzen zer egin nahi duzun — esan zion gazteak.

— Begira Devandel jauna — esan zion Johnek —. Etxaldean jarraitzen badugu, gaur edo bihar denak hilko gaituzte. Ez dugu aski izango ez gure olioarekin, ez gure fusilekin.

— Eta zer egingo dugu? Ihes egin?

- Ez dago beste biderik.
- Baina hori ezinezkoa da. Ondoan ditugu.
- Sorpresaz egiten badugu bai. Utzi niri egiten. Hamar gizonezko behar ditut.
- Eta bere bi ilara horiek, nola pasako ditugu?
- Egon lasai pasako ditugu eta. Gero, ospa egin behargu dugu. Ahalik eta azkarrena Atzetik etorriko baitira.

Hori esan bezain laster, Johnek hamar gizon hartu zituen bere mende: hamar beltz, mestizo bat, eta hiru ehiztariak.

Azal gorriak inguratzen ari ziren. Batzuen buru Jalta bera. Mantu eder baten azpian. Harro harro. Beste batzuen buru Galdara Beltza eta Laino Gorri.

Ezkerra Jaltaren atzetik, zaldi bikain baten gainean.

Bostehunen bat metrotara iritsi zirenean, bere kargazoi guztiak bota zituzten. Defendatzaile pare bat hil zuten. Hauek, eraberean erantzun zuten, eta beste hainbeste hil zuten.

Bitartean John eta bere lagunak lanean ari ziren. Hogeita hamar zaldiak atera eta binaka jarri zituzten erreka begira. Lehenengo hamabostak elkarren artean lotuta, azkarregi banatu ez zitezten.

Hartu aizkorak eta egurresia puskatu zuten leku zehatz batean. Indiarrak pasa zitezkeen handik, baina, zirudienez, ez ziren konturatu. Bazuten nahikoa beren borroka harekin.

Lana bukatu zutenean, John koronelaren semarengana joan zen. Hantxe inguratu ziren etxe hartako beste defendatzaileak ere.

- Aurrera mutilak — esan zien Johnek —, laister sartuko dira hemen indiarrak. Aurretik | deskarga ditzagun gure fusilak. Gero kargatu berriz eta etorri nire atzetik. Ez pausorik galdu. Igo bigarren ilaran dauden zaldietan.

Agindu bezala egin zuten. Hitzez hitz. Irtetzera zihoazela, begiratu zuten gora eta etxea sutan zegoela konturatu ziren. Ganbara aldetik ke beltz-beltza sortzen zen. Eta haren tartean neska koskor bat ikusi zuten lastargia eskuetan zuela. Minnehaha bera zen.

Johnek apuntatu zuen fusila. Baina tiro egitera zihoan unean bistatik galdu zen neska maltzur hura.

— Suge gaizto horrek etxeari su eman dio —esan zuen Harrisek.

— Ez dezagun denborarik gal — erantzun zion Johnek — Honek ez du erremediorik. Erretzen baldin bada, erre bedi berarekin neska koskor gaizto hori.

Indiarrak egurresiaren beste aldetik pilatuta zeuden. Erasorako deia noiz entzungo.

Gure abenturazaleek eta haien zerbitzariak gogor jo zuten egurresia puskatuta zegoen lekura. Nahiko zabala zen irekitako zuloa. Fosoaren gainetik ohol bikainak zeuden jarrita. Egurresiarenak berberak, aizkoraz botatakoak.

— Ea, zalditara! — esan zuen Johnek.

— Ez dugu denbora galtzekorik — Harrisek.

Indiarrak harri eta zur gelditu ziren zulo hartatik zaldiak eta jendea irtetzen ikusi zutenean. Haien zizpa eta sasoia! Ez zuten erreakzionatzeko denborarik izan.

Gainera batzuek ez zuten zaldirik, fosora iristeko asmotan ziren eta. Haien ingurutik pasa ziren etxetarrak.

Eta John aurretik aginduak emanaz.

— Egin su! — agindu zuen.

Eta aurrean zeuden dozenaka azal gorri erori ziren hilda.

Laster izan zuten erantzuna. Baina bitartean zerbait urrutiratzeko denbora izan zuten. Ezustean harrapatu baitzituzten. Gero tiro egin zuten, eta atzeko beltz bat zauritu zuten.

Ezkerrak lepotik heldu eta ahizto kolpe batez ile adatsa ebaki zion. Gauza berbera egin zuten beste bi mestizoekin. Zauritu eta ahizto kolpe batez ile adatsa kendu ezkutuan jartzeko.

— Guda gogorra baita — zioen Johnek.

Begiratu zuen atzera. Eta Laino Gorri zaldi gainean, eta bere ondoan Minnehaha ikusi zituen. Neska madarikatua.

— Hori da gurekin ibili dugun neska indiarra — esan zuten ehiztariek.

— Ez dakit nola aldegin duen sugarretatik komentatu zuen Harrisek —. Burdinezkoa dirudi!

— Ekin zaldiei — Johnek —Urrutira gaitezen deabru hauetatik!

Lauhazka bizian urrutiratu ziren. Pinudia igaro eta laster ikusi zituzten zelai zabalak. Hura lekua egokia zen abiadura bizian aurrera egiteko. John, beti bezala, aurretik zihoan.

Eki aldera jo zuten. Ze, bilatuz gero, handik etorriko baitzen Chivington koronela.

Hura zen aurrera jo beharra. Batzuk aurretik eta besteak atzetik noiz harrapatuko. Batzuen zaldiak onak, eta besteenak haienak bezain onak. Azal gorriak gorroto biziz zihoazen ile adats berriren bat noiz harrapatuko. Noiz behinka tiro egiten zuten. Eta zerbitzari batzuk hil ere bai.

Bi ordu igaro zituzten horrela. Batzuek gehiegi urrutiratu gabe. Besteak gehiegi gertutu gabe. Johnen taldean zerbitzari asko hil zen. Eta beste taldean ere batzuk hil ziren fusil deskargengatik. Beste batzuek ezin zuten jarraitu ziztu bizi hura.

Horrela zihoazen. Halako batean Johnen zaldia kolpean geratu zen. Ez atzera, ez aurrera.

— Ekin, segi aurrera — esan zioten lagunek.

Alferrik. Ez zuen jarraitu nahi. Lokaztiaren aurrean zeuden:

— Madarikatua — esan zuen Johnek —. Ahaztuta neukan lokazti hau hemen zegoela.

— Bila dezagun lehengo pasadizoa — Harrisek.

— Ia zortea dugun! — erantzun zion Jorjek —. Bestela gizaki hilak gara.

Besterik gabe, ekin zion Johnek zaldiari. Sartu zen hau lokazti hartan, makurtu zen ia erortzeraino. Baina gero, altxatu zuen burua eta lepagaina, eta abiatu zen aurrera.

Besteak atzetik. Baina bide hura ez zen behar bezain trinkoa. Eta besteak makilak bezala tinkatuta gelditu ziren han, Johnek beste alderdia harrapatzen zuen bitartean.

Johnek lagundu nahi izan zien besteei. Alferrik. Haiei laguntzea beretzat kondenatzea izan zitekeen. Beraz, besteen egoera oso larria zen.

Atzetik zetozen ehunen bat azal gorri. Buruzagi gisa Jalta eta Laino Gorri.

Gero Ezkerraren ahotsa entzun zen:

— Ez hil azal.

Hori esan zuenean, tiro deskarga beltz bat entzun zen. Koronelaren zerbitzari guztiak, beltz eta mulatoak, lurrera erori ziren lokatzetan galdu arte.

Besteak zaldi gainean zeuden. Harrisek adoretu zituen koronelaren seme-alaba:

— Ez galdu itzaropena. Oraindik bizirik gaude. Beharbada laster iritsiko da Chivington koronela.

— Egon lasai — esan zuen orduan koronelaren semeak.

— Ni lasai nago — erantzun zion bere arrebak —. Gudari on baten seme-alabak gara. Eta hil behar baldin badugu, hilko gara.

— Errenditzen al zarete? — galdetu zuen Ezkerrak.

— Bai, errendituko gara — erantzun zion Harrisek —. Baina baldintza batekin.

— Gure mende zaude eta ezin duzu baldintzarik jarri — erantzun zion Ezkerrak.

— Bada nik baditut nire baldintzak — erantzun zion Harrisek —. Bi gazte hauen ile adatsak errespetatuko dituzue. Hori da nire baldintza.

— Eta betetzen ez badugu, zer? — erantzun zion Ezkerrak.

— Gu galduta gaude, eta onartzen ez baduzue, hemen bertan lokatzetan galduko gara. Guri berdin zaigu.

Hori ez zitzaien komeni azal gorriei. Orduan Jalta esaten dio Ezkerrari:

— Esaiozu baietz. Gero izango dugu ez betetzeko denbora.

Orduan Ezkerrak erantzun zion:

— Ondo dago. Onartzen dugu zure baldintza.

Harrisek ordea, gehiago eskatu zion:

- Zin egin ezazu Espiritu Nagusiaren izenean.
- Zin egiten dut Espiritu Nagusiaren izenean.

Gure gizonak ezin ziren lokatzetik irten.

Orduan, indiarrek inguretako zuhaitz adar batzuk moztu zituzten. Haiekin zubi bat eginik atera zituzten handik.

Jalta inguratu zitzaien. Zorrotz baino zorrotzago begira:

- Lasaitu al zara? — galdetu zion Harrisek.
- Bai, baina ez zeharo — erantzun zion honek —. Nahiago nuke aldegin duen beste gizon madarikatu hori hemen balego. A ze nolako ile adatsa zuen! Dena dela, ez dio axola. Egunen batean haren ile adats hori ere nire ezkutuan jarriko dut. Ez izan zalantzarik!

Ordubete geroago azal gorriak ekialdera abiatu ziren.

Aurretik, beti bezala, Jalta, Laino Gorri, Ezkerra eta Galdara Beltza zihoazen.

Siux gudarien artean zihoazen lau gatibuak. Ondo lotuta, hanka eta esku. Mary bera ere bai. Eguerdian idi haragia jateko geratu ziren. Piztu suak eta erre zuten.

Presoak erdian ipini zituzten inguruan zaintzaileak zituztela.

- Gureztat dena bukatu ote da? — galdetu zien Harrisek besteei.
- Nik ez dakit zer gertatuko zaigun. Baina oraindik bizi gara behintzat.
- Makilaren zigorra emango ote digute?
- Ez dut uste. Jaltak gurekiko beste asmoak dituela dirudi.
- Zer asmo?
- Hori nola jakin? Berak ez du ezer esan eta. . .
- Beharbada, guda osoan preso eduki nahi gaitu. Hori horrela balitz, etorriko litzaiguke guretarren bat askatzera.

— Nik ez dut horrelakorik uste — esan zuen Harrisek — Jaltak gurekiko asmo bereziak ditu. Bai. Bera da siux guztien artean gaiztoena, eta buruzagi guztien artean maltzurrena. Gu-
retzat tortura bereziak dituela uste dut.

— Nahi izan balu, hilko gintuzkeen — zioen Jorjek.

— Beti da pozgarria bizirik ikustea. Gure itxaropena John Maxim jaunarengan dago. Ausarta da, eta saiatuko da gu salbatzen.

Isildu egin ziren; bi indiar inguratu zitzaizkien bi plateretan haragi pila zekartela. Idi eta bisonte haragia zen. Sutan erreta. Itxura onekoa.

Abiatu baino lehen, Jalta presoan aurretik pasa zen. Begiratu maltzurra bota zien, isekaz betea.

— Deabruak eramango al zaitu! — oihu egin zion Harrisek.

— Kontuz ibili zaitetz gizon zuri — esan zion honek —. Nahi dudanean hil zaitzaket.

— Eta zergatik ez nauzu, bada, oraindik hil?

— Ez dizut azalpenik zor — erantzun zion Jaltak.

— Esaiguzu, gutxienez, nora garamatzazun?

— Laster jakingo duzue.

— Zer egin behar duzu koronelaren semeekin?

— Gero jakingo duzula esan dut, eta nahiko da.

Jarri zen zaldi gainean Laino Gorri atzetik zeramala:

— Jarraitu — agindu zion honi.

Harrisek ganbusiarrari amorruez begiratu zion

— Esaidazu zuk nora garamatzan?

— Nire emazteak ez badizue esan, nik zer egin dezaket?

— Zure emaztea ee? — oihukatu zuen Harrisek —. Madarikatua! Horregatik zaintzen zenuen hain ongi Minnehaha! Arraio hori, libratzen banaiz ez zara bizirik geldituko!

Baina azken hitz hauek ez zituen entzun Laino Gorrik, ze zaldi gainean alde egin baitzuen.

— Jaltaren senarra! — dio Jorjek —. Nork pentsatu behar zuen! Saltzaile alua! Damutzen naiz berarekin ibili izanaz!

— Garbi dago berak salatu gintuela gu, pekari animaliak erasotu gintuzten gau hartan!

— Eta gu konturatu ere ez indiar bat zela!

— A zein zoroak izan garen! Orain damuak alferrik dira!

— Gu engainatu gintuen! Baina horrek beste edozein ere engainatuko luke!

— Nahiago nuke hartz beltz hark desegin izan balu — Jorjek.

— Isildu adiskide. Badatoz koronelaren seme alaba eta ez da komeni hauek beldurtzea.

Abiatu ziren. Ilunabarra zen. Bat-batean azal gorriak iparraldera jo zuten. Ilargi betea zegoen. Beraz, gau ikaragarria.

Lau ordu igaro zirenean, urrutian argiunetxoak begiztatu zituzten.

Harrisek ongi ezagutzen zuen bazter haien berri:

— Uste dut badakidala nora garamatzen. Lehendik ere pasa dugu gau bat hemen. Gau ikaragarria!

— Nik ez dakit, bada, nora garamatzen!

— Nik uste dut, ziur nago — Harrisek — Misiara, Sarraskiaren Misiara garamatzala.

— Otsoen kontra babestu ginen lekura?

— Hori bera!

— Eta zergatik ote garamatza harantz?

— Auskalo! Baina laster jakingo dugu.

Taldeak presaka zen, eta troska bizkortu zuen.

Arrazoia zuen Harrisek.

Berehala iritsi ziren Misiara.

Han zeudenak kaixoka eta agurka hartu zituzten Jalta eta bere gudariak. Garaipen garrantzitsua iruditzen zitzaien hura.

Jaitsi zen Jalta. Gero Ezkerra. Honek gure lau gatibuak jaitsiarazi zituen.

— Jarraitu niri! — esan zien.

Misioaren lur azpiko satora eraman zituen.

— Hemen utzi behar al gaituzue? — galdegin zion Harrisek.

— Bai. Hemen seguruago egongo zarete —erantzun zion Ezkerrak irribar maltzurrez.

— Gogoan izan emandako hitza . Bi gazte hauen ile adatsak errespetatuko dituzula agindu diguzu — gogorazi zion Harrisek — Beteko ahal duzu!

— Aaa! Ahaztua nengoen! — erantzun honek maltzurki.

Zelatariak barrura bultzatu zituen, elizara.

Argi batek argitzen zuen kripta.

Jaltak, pozaren pozez, galdetu zien zelatariei:

— Non dago?

— Hor barruan! — erantzun zuten gudariak barru barruan zegoen gela bat seinalatuz.

Belar pila batean, gizon moduko gizaseme bat nabaritu zitekeen.

Jaltak lastargi bat hartu eskuan eta harantz abiatu zen.

Gizaseme irudizko nor hura larritu zen argia ikusi zuenean.

Gizon hura, gizon indartsua zen. Bizar betekoa. Egoera tamalgarrian zegoen. Burua ilerik gabe. Buru soilean odolezko erreten ugari ikusten zitzaizkion hezurretan erantsita bezala.

Indiar buruzagia inguratu zen. Indiarrek buruzagiari sakem deitzen zioten. Berarekin lau gatibuak. Eta galdegin zien haiei:

— Ezagutzen al duzue?

Bi gazteen ahotik oihu lastimagarriak irten ziren:

— Aita! Aita!

Besarkatu egin nahi izan zuten. Baina Jalta harroak ez zien utzi.

Gero Jaltak esaten dio:

— Ikusi dituzu zure seme-alaba. Bihar egunsentian zure begien aurrean ile adatsa larrutuko diet. Hori izango da nire mendekua. Abandonatu ninduzulako mendekua.

Devandel koronelak ez zuen erantzun. Baina pizti basatien ahotik soilik irtetzen den amorraziozko eta minezko oihu lazgarri bat atera zitzaion.

— Eta zuek beste biok — esan zuen Jaltak — zuentzako ere pentsatu dut nire zigorra. Gau osoa oinaze-makilan lotuta igaroko duzue. Hamaika barre eta iseka egingo dute gure gudariak zuen kontura. Merezi ere, merezi dute.

* * *

Beraz, gauzak horrela zeuden Sarraskiaren Misioan. Eta John? Non ote zegoen Joen? Kostaldetik lauhazka bizian zihoan.

Inork ez zekien norantz. Ezta berak ere.

Bide ireki bat ikusten zuenean lekutik aurrera jarraitzen zuen. Agian lagun batzuk topatuko zituen. Itxaropen hori zeraman.

Nahikoa zorte izan zuen, ze bide guztian ez baitzuen indiar bat ere topatu.

Gosetu ere egin zen. Triste zegoen, ez baitzekien bere adiskideei nola lagundu.

Ilunabarrean zaldi ilara bat begiztatu zuen. Zelai zabalean aurrera zihoazen.

Ireki zituen begiak. Harriduraz beteta begiratu zuen. Ez ote zen bisio harrigarri bat izango? Ez zen halakorik. Benetako zaldunak ziren. Boluntarioak alegia.

Barruak eman zion poz-zartada ezin etsi horietakoa izan zen.

Indiar agenteak azkeneko gertaera azaldu zien. Besteek arretaz entzun zioten. Bederatziehun ziren, bi ilaratan jarrita. Sobra eta gehiago indiar guzti haiek menderatzeko.

Hain zuzen, horretara zihoazen boluntario haiek. Azal gorrien matxinada ikaragarria menderatzera. Eta bere buru, hainbeste aldiz gogoratu zuten Chivington koronela.

Johnek pertsonalki ezagutu zituen zenbait gudari. Hura poza barnekoa.

Chivington koronelak arretaz entzun zion Johni. Eta eraso ustekabearen eman behar ziela erabaki zuen.

Bazekien inguru samarrean zela Misio ospetsua. Denek pentsatzen zuten behin-behinean, bederen, indiarrek han altxatuko zutela kanpalekua. Harantz abiatuko ziren.

1.864 urteko irailaren 29a zen.

Gauerdirako hara inguratu ziren boluntarioak, John aurretik zutela. Suak berak agintzen zuen indiarrek non zeuden akanpatuta.

Bitartean Jorje eta Harris oinazearen makilari lotuta zeuden. Tortura txarrenei hasiera emateko Jaltaren aginduaren zain.

Oinazearen makilaren inguruan zeuden gudaburuak. Jalta berbera, ikuskizun odolezko haren antolatzailea, Minnehaha berbera, Galdara Beltza, Ezkerra, Laino Gorri eta abar.

Chivington koronelak kanpalekua inguratzeko agindu zuen. Berak seinalea eman bezain laster, gudari boluntarioak ekaitz baten moduan erori ziren indiarren aurka.

Laino Gorrik bakarrik egin zuen ihes; Minnehaha berarekin eraman zuen.

Indiar buruzagi guztiak, banaka banaka hil ziren armarik hartzeko denborarik gabe. Jalta bakarrik gelditu zen bere zaldi gainean, bere gudari talde bat inguruan zuela.

John urduri zegoen, Jalta madarikatu hura non ikusiko. Hura triskatu nahi baitzuen. Eta hara

non ikusten duen. Ekin zion zaldiari, aurrez aurre jarri arte.

— Azkenean hemen zaitut! — esan zion —. Kontu hau kitatu beharrean gaude!

Besterik gabe, eta Jaltari ezertarako denborarik eman gabe, fusil tiro pare bat bota zion.

Siux tribuko sakem buruzagi entzutetsua lurrera erori zen zerraldo. Hiltzera zihoan.

Haren mantu zuria odolgorritzen hasi zen. Oraindik ere gauza izan zen indiarra Johni begiratzeko eta esateko:

— Egunen batean Minnhahak mendekatuko nau!

John pozik zegoen. Han bukatzen ziren bere lanak.

Baina Chivington koronela maltzurra zen, Jalta bera bezain maltzur eta odolzalea; bilatu zituen emakume guztiak ezpataz pasa zituen. Umeak, berriz, hil edo txikituta utzi zituen bere su eta amorruan.

Geroztik leku hura Chivingtonen Hilketa izenez ezagutzen du mundu guztiak. Han galdu zuen gizon bati dagokion ohorea ere.

Emakume eta haurren errukia izan balu, handik jeneral izarrarekin joan zitekeen agian. Baina gorrotoak begiak ixten ditu. Eta hori gertatu zitzaion koronelari.

Hamabost egun igaro ziren. Eta Devandel koronela ere indartu zen. Zauriak itxi zitzaizkion eta gorputza alaitu ere bai. Utzi zuen Misio ospetsua berak, bere seme-alabak, bi ehiztariek, Johnek eta Chivington koronelaren hamabi gudamutilek. Bere etxalde desegina zegoenez gero, bigarren emaztearen La Sonora izeneko lekuan zuen beste bateara erretiratu zen.

Bazirudien azal gorrien matxinada bukatua zegoela. Laino Gorri eta Minnehaha bakarrik ez ziren gauza.

Baina 1865an beste indiar tribu batzuekin elkartu ziren. Kavoway eta apatxe izeneko tribuekin. Beste urtebetean nahiko lanak eman zituzten. Zelai zabalak beretzat nahi baitzituzten. Gizon zuria etorri arte, bereak baitzituzten zelai zabal horiek.

Baina 1867. urtea ere etorri zen. Guda latz hura gero eta okerrago joan zitzaien. Azkenean Kansas izenpean bakea egin beharra izan zuten indiarrek. Bake haren bidez, indiarrek gerora errespetatuak izango zirela agintzen zen.